

Goienkaria

2010eko apirilaren 30a > Egubakoitza > X. urtea > 419. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10
Komunikazio Zerbitzuak URTE

www.goiena.net

TOKIKOM

"AHTren aurka egiten du informazio on eta benetakoa daukan guztiak"

Mila Elortza
AHT Gelditu!
Elkarlaneko bozeramailea > 08



G2a

Huhezinema lehiaketak sei sari banatu ditu > 31

BERGARA

Arrizuriaga-Seminarioa trukea irail aurretik egiteko eskatu dute > 16

ARETXABALETA

Herrian oso gustura bizi direla esan dute herritarrek > 22

ANTZUOLA

Sagastiko biribilguneko proiektua ikusgai astelehenetik aurrera > 25



GARAJEAN Ruben Nogueiras bere saltsan, aste barruan, Zabaletaren Lola BMW autoan sartuta; domekarako autoz aldatzeko proposamena egin zion Bergarakoak.

XABIER URTZELAI

AUTO LASTERKETAK > UDANAKO IV. IGOERA

Mendiko sariko azkarrenak, Udanako igoyerarako gertu

ZABALETA ETA NOGUEIRAS
Iazko Euskadiko azkarrenak gertu domekan Udanan denboraldia hasteko

LASTERKETA 13:00etan itxiko dute Udanako errepidea eta 14:00etan egingo dute lehenengo txanda

IBARREKO HAMAIIKA Oñatiko zortzi pilotu eta Bergarako hiru lehiatuko dira, kategoria desberdinetan > 28-29

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Iritsi da Haitira bidalitakoa

Asteon iritsi dira Haitira Gipuzkoatik laguntzarekin bidalitako sei kontainerrak. Leire Atxega misio ordezkariak eskerrak eman nahi dizkie laguntza emandako debagoiendarrei. > 4

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 36-37
Non-zer > 38-39

AZPIEGITURAK > ERREPIDEA

Autobideari 9 alegazio Antzuolan

Beasain-Bergara ardatzeko Urretxu-Antzuola tartea aurten hasiko dira egiten; 2,7 km izango ditu > 04

JENDARTEA > GERTAKARIAK

Itzul daitezke etxera luiziak kaltetutako eskoriatzarrak

Urtarrilaren 31n Aranburuzabala kaleko 24 eta 30. zenbakien atzealdeko mendi magalean gertatutako luiziaren ondorioz etxetik kanpo egon diren sei familiak itzul daitezke dagoeneko etxera. > 24

ESAIT-eko termiko berdea eta bisera opari. Nahi?

Zoaz 29. orrialdera



KOMUNIKAZIOAK > ESKUKO TELEFONOA

Mugikorra, jendearengana hobeto iristeko erreminta

BAILARAN Aretxabaletako kultura egitaraua mugikorrera jaits daiteke; Agorrosin orain hasiko da SMS bidez oharra bidaltzen erabiltzaileei

ETORKIZUNA Baturako Gotzon Arzelusen esanetan, "webguneak moduan, telefonoak ezinbestekoak izango dira erakundeendako"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Diru-zorroa, giltzak eta poltsiko-telefonoa: horiek dira etxetik irteterakoan aldean eramaten ditugun hiru gauza ohikoenak, eta horietatik hirugarrena, telefonoa, da epe laburrean ohiko lagun bilakatu zaiguna.

Hala ere, tresna horrek daukan potentzial izugarriaz soilik oraintxe hasi gara konturatzen eta horri etekina ateratzen. Debagoieneko udalek oraindik oso pauso gutxi eman dituzte norabide horretan, baina badaude adibide batzuk: Oñatiko Turismo Bulegoak aurkeztu berri du gida turistiko mugikorra, eta lehendik dago Hirutur turismo produktua, Loiolako Ignazioaren figuraren oinarrituta eta Debagoienak parte hartzen duena. Beste adibide bat da Arrasateko anbulatorioa: hala nahi duten erabiltzaileek SMS mezua jaso dezakete mediku espezialistarekin duten hitzordua gogorarazten, hiruzpalau egun lehenago. Arrasateko, Bergarako eta Leintz bailarako udal euskaltegiek ere erabiltzen dute poltsiko-telefonoa euren ikasleei abisuak edo unean uneko mezuek bidaltzeko: aurre-matrikulazio epea hasten denean, eta urtean beste hiru alditan.

Orain, Bergarako Udalak egin du urratsa, eta bihar, zapatua, hasiko da Agorrosin ekintzagunea bere erabiltzaileei informazioa SMS eta posta elektronikoa bidez bidaltzen. Amaia Zabaleta arduradunak honakoa dio: "Erabiltzailearengana hobeto heldu nahi dugu. Onespina eman dutenei SMSak bidaliko dizkiegu, adibidez, ikastaroko saio bat bertan behera geratu denean, edo instalazioak itxita egon behar direnean. Egunean 1.000 bat erabiltzaile izaten ditugu, eta horiek guztiak telefonoz harrapatzea oso zaila da; bada, modu horretara, mezua telefonon izango dute".

**Debagoienean
sortutako Batura
enpresak telefono
mugikorrerako
zerbitzuak
eskaintzen dizkie
erakundeek**

**Herritarrarenganako
zerbitzua hobetzeko
eta barruko
komunikaziorako
balio dezake eskuko
telefonoak**

Ikastetxeak ere hasi dira etekina ateratzen eskuko telefonari: Bergarako Miguel Altuna ikastetxeak aplikazio bat dauka, nahi duenak deskargatzeko, ikastetxearen gaineko denetarikoa informazioa eskura jartzen duena; eta Mondragon Unibertsitateak ere, ikasle izan daitezkeenei bere eskaintza aurkezten dienean, aurre-matrikulazioaren edo ate ireki jardunaldien gaineko abisuak bidaltzeko aukera ematen die.

Debagoienean sortutako Batura Mobile Solutions enpresak erakunde publikoei, batez ere, eta baita enpresei ere, telefono mugiko-

rrerako zerbitzuak eskaintzen ditu. Baturako gerente Gotzon Arzelusek hauxe dio: "Erakunde guztiak hasi beharko dira telefono mugikorra euskarri gisa kontuan hartzen euren estrategietan, eta gaur egun prozesu horren hasieran gaude".

BI ALDEENDAKO ONURAK

Gotzon Arzelusen esanetan, joera horretan sakontzea ona da erakundearendako zein herritarrendako: "Norberak beti alta eman behar du horrelako zerbitzua jasotzeko; datuen babes legeak hala agintzen du. Eta, adibidez, Udalaren informazioa jaso-

ADIBIDE BATZUK

> AGORROSIN KIROLGUNEAN Bihar, zapatua, hasiko dira e-mailaz eta SMS bidez informazioa bidaltzen, hala egitea onartu duten erabiltzaileei.


> MONDRAGON UNIBERTSITATEA Ikasle izan daitezkeenei aurreinskripzio garaian SMS bidezko oharra jasotzeko aukera dute, hitzordu garrantzitsuenekin.

> ARRASATEKO ANBULATORIOA Mediku espezialistek SMS bidez gogorarazten dute hitzordua, egun batzuk lehenago.

> UDAL EUSKALTEGIAK SMSak bidaltzen dizkiete ikasleei, aurre-matrikulazio garaian eta urtean beste hiru alditan.

> ARKUPE KULTURA ETXEA Aretxabaletako kultura programazioa mugikorrera deskargatzeko aukera dago, bluetooth bidez.

> MIGUEL ALTUNA IKASTETXEA Ikastetxearen, bere eskaintzaren... gaineko informazioa ematen duen aplikazio bat deskarga daiteke.



Eskuko telefonorako baliabideak sortzen ditu Debagoienean sortutako Batura enpresak.

tzeko alta ematen badut eta maiztasun jakin batekin informazioa bidaltzen badit, nik ez dut mezu hori atzera botako; beste gauza bat izango litzateke etengabe mezuak bidaliko balizkit. Era berean, udal batek zerbitzu hori ematea garrantzitsua da: herritar batek kezu bat agertzen bal-

din badu bere Udalean, Udalak hori konpontzen duenean herritarrari erantzuteko aukera dauka, eta hori da herritarraren eta Udalaren artean komunikazioa hobetzeko modu bat".

Abantaila gehiago badaude: berrikuntzan bete-betea sartzea eta, gainera, papera aurrezte.



Deskargatzeko aplikazio batzuk, farmazia eta Hiruturrena.

BATURA

Ze sagardotegitara joan eta ze autobusetan

Informazioa deskargatzeko aukera ematen dute erakundeek. Hala, Gipuzkoako sagardotegien gida (txotx.batuin.mobi); Gipuzkoako farmazien gaineko informazio praktikoa -guardiak- (www.cofgipuzkoa.com/wap); edo Hirutur turismo informazioa (hirutur.batuin.mobi). Autobusen ordutegiak ere jaits daitezke (www.pesa.net/mobi). Kostua operadore bakoitzak ezarritako konexio-tarifaren arabera da.

Baturak sortu ditu bestelako aplikazioak: Kolonbiako Gobernuarendako edo Peñiscolako Udalarendako, turismo gidak; eta Bilboko Udalarendako, Bilbus autobusen gida, urtebetean 30.000 deskarga izan dituen.



GOIENKARIA

Gotzon Arzelus > Batura Mobile Solutions-eko gerentea

"Telefonoa pertsonala da; horrek indarra ematen dio"

L.K. > BERGARA

Baturako arduradun Gotzon Arzelus bergararraren esanetan, esku-ko telefonorako "gauza politak eta zerbitzua ematen dutenak" egin daitezke.

Zergatik bihurtu da esku-ko telefonoa hain ohiko tresna?

Komunikatzeko tresna soil izatetik haratago joan delako, eta baduelako indarra; ordenagailua ez bezala, telefonoa ez da konpartitzen, eta badauzka pertsonalago egiten duten elementu batzuk. Horrek sekulako indarra ematen dio telefonoari, tresna gisa eta marketin-erako erreminta gisa.

Ze egoeratan gaude orain?

Erakunde guztiak telefonoa kontuan hartzen hasi beharko dira euren estrategietarako. Orain 15 urte, webgunea egitea oso-oso ezohikoa zen, eta gaur ezinbestekoa da; bada, telefonoarekin gauza bera gertatuko da. SMSa publizitaterako baino gehiagorako erabiliko da: ez da gauza bera bidaia agentzia batek eskaintza bat bidaltzea, edo gure erreserba konfirmatzeko eta txartelak gertu dauzkagula esateko mezua bidaltzea.

Jendea fidatzen da, zure iritziz?

Spam-aren kultura dago, eta telefonoak efektu biderkatzaile



LEIRE KORTABARRIA

handia dauka; horrek erre egiten du. Beti gorde behar da oreka bat informazioaren eta maiztasunaren artean, eta bide horretatik goaz. SMSak 160 karaktere dituzenez, horko informazioa beti izango da deigarria, edo lehenengo pauso bat. Dena dela, telefono guztiek daukaten teknologia bat da, oinarritzkoena.

SMSez gain, beste zer teknologia dago telefono mugikorrerako?

SMSez gain, ez dago eduki mota komun bat telefono guztietarako, eta hor arazo teknologiko eta sozial bat egon daiteke: teknologikoa, egile bakoitzak bere teknolo-

giak dituelako, eta erabiltzaile bakoitzak, bere kontratuak bere operatzailearekin; eta, horrekin lotuta, muga sozial batzuk daude: hala, batek irakurri ahalko du egunkaria telefono bidez, baina beste batek, ez.

Enpresak eta erakundeak ere hasi dira, baina, euren estrategiak garatzen, eta badaude Java hizkuntzan, telefonoen %90ek onartzen dutenean egindako aplikazio batzuk, deskargatzeko: Debagoienean dago Hiruter proiektuarena adibidez, kanpoko bisitariendako baina hemengoendako ere pentsatuta. Herriak, museoak, baliabide turistikoak, jatetxeak... agertzen dira.

Finean, garapena sektorearena bestekoa da: gauza berri bat da eta erakundeak non sartu begira daude. Eta egin daitezke gauza politak, bitxiak, eta zerbitzua ematen dutenak.

Beste zertarako izan daiteke interesgarria esku-ko telefonoa?

Enpresen barne komunikazioa hobetzeko tresna bat da, sistema itxi gisa. Adibidez, enpresa baten komertzial bat bezero bat bisitatze-koan baldin badao, bisita bukatzerakoan bat-batean erreportatu diezaiokere bere enpresari; edo bezeroen datu-basea telefonotik kontsultatu.



goieskola
debagoieneko euskal
eskola publikoa



guztiona,
guztion artean

goieskola@euskalnet.net | 605 773992 | www.goieskola.net

ZUAZOLA-LARRAÑA INSTITUTUA

Batxilergoa: 943 781268 / Lanbide Heziketa: 943 782150
www.onati.net

Informazio bilera eta ate irekiak:
maiatzak 6, 18:30

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa
- Lanbide Heziketa: Heziketa Zikloak
Aurrematrikulazioa: maiatzak 31 - ekainak 11
Ate irekiak: maiatzak 26, 18:30, Larrañan
- Mekanizazioa
- Makinen eta Linea Eroanbideen Mantenu
Elektromekanikoa
- Natur Ingurunean Kiroi Ekintzen Gidaritza

ARRASATE INSTITUTUA

Santa Teresa 25 / Tel.: 943 794447 / 943 798300
www.arrasateinstitutua.net

Informazio bilera eta ate irekiak:
maiatzak 4, 18:00

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa
- Arte Batxilergoa

IPINTZA INSTITUTUA

Boni Laskurain 19 / Tel.: 943 763142
www.ipintza.net

Informazio bilera eta ate irekiak:
maiatzak 6, 18:30

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa



Haitira iritsi den laguntza kutxetatik ateratzen.

LEIRE ATXEGA

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Iritsi dira Haitira bidalitako laguntzak

Leire Atxega misio ordezkaria gurean egon zen otsailean Haitirako laguntza eske; batez ere elikagaiak dira eraman dituztenak

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Dagoeneko Haitin daude Gipuzkoatik bidalitako sei kontainerrak. Asteon iritsi dira, eta aduana pasa ostean mesedetako mojen esku daude laguntzak herritarren artean banatzeko.

25 tonako kontainerrak bidali zituzten; bost otsailean eta azkena martxoaren 27an. "Eskatutakoa batu genuen. Batez ere elikagaiak -olioa, arrosa, azukrea,

papillak-, baina baita kanpin dendak, arropa, botikak...", azaldu du Leire Atxegak.

JACMEL ELIZBARRUTIA

"Laguntza Jacmela bideratuko dugu. Kontuan hartu behar da Jacmelen %80 desagertu zela lurrikararekin", dio Atxegak. Mesedetako mojak Jacmeletik 10 minutura bizi dira, eta haiek arduratuko dira laguntzaz.

"Hildakoak asko izan ziren, baina orain arduratzen gaituztenak bizirik daudenak dira. Gainera, laster eurite garaia hasiko da eta kalean jende asko bizi da", esan du Atxegak.

Gaur egun zortzi moja daude lanean Haitin; Atxega misio ordezkaria eta haren gizona atzo joan ziren Haitira eta maiatzaren 25ean izango dira bueltan.

MERKATUA

Atzo arratsaldean Arrasateko Santa Teresan Haitiren aldeko merkatua egin zuten. Harremanekin elkarlanean antolatutako ekintza izan zen.

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Beasain-Bergara ardatzeko Urretxu-Antzuola zatiaren alegazioak, bideratuta

Diputazioaren asmoa da lanak 2010ean hasten eta 30 hilabeteko iraupena izatea; 68 milioi euro bideratuko dituzte

Urretxu-Antzuola autobide zatia 2,7 kilometrokoa izango da. Deskargan 680 metroko tunela egingo dute. Lanok egiteko Diputazioak 68 milioi euroko aurrekontua dauka.

Diputazioaren asmoa da 2010ean hasten lanok egiten; behin hasita, 30 hilabeteko epean egingo lituzkete.

A.E. > BERGARA

Bideratuta daude Beasain-Bergara autobidearen Urretxu-Antzuola zatiari herritarrek jarritako alegazioak. Antzuola-ko Udalean herritarren sei alegazio jaso dituzte; gainera, beste alegazio bat Udalak berak jarri du; eta, Valen Moñux Antzuolako aparejadoreak adierazi du herritarrek euren kontura beste bi alegazio jarri dituztela jakin dutela.

ANTZUOLA-BERGARA

Deskargan tunel bat egingo dute, eta beste tunel bat egiteko proiektua dago Bergarako sarreran -gaur egun GI-632 errepidean dagoen tunelaren gainean-. Bi tunel horien arteko zatia da Antzuolan ikusgai izan dutena azken egunotan.

Beasain-Bergara autobidearen azken zatia izango da Antzuola-Bergara zatia. Oraindik proiektua idazten dabilta.

> TURISMOA

Loiola eta Arantzazu arteko ibilaldia egingo da Mundumira jaialdiaren barruan maiatzaren 22an

GR-120 mendi martxa egingo dute maiatzaren 22an, Mundumira jaialdiaren barruan. Ibilaldia *Hiru tenpluen ibilbidea: Loiolatik Arantzazura* izango da. Hala, Ignaziotar Lurraldean dauden hiru tenpluak ikusteko aukera izango dute: Loiola, Antigua eta Arantzazu. Mundumira munduko kulturen jaialdia maiatzaren 29an eta 30ean izango da Antzuolan; mendi martxa, baina, astebete lehenago: maiatzaren 22an.

Alaña Mendi mendi taldeak antolatutako ibilaldia izango da. Esan behar da 45 kilometroko ibilbidea dela. Informazio jasotzeko edo izena emateko deitu 902 181 471 telefonora edo idatzi turismo@debagoiena.net helbidera.



ULMA Manutención, Koop. E. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA D E I A

Eguna: 2010eko maiatzaren 7a.
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
Tokia: Santa Ana antzokia - Oñati.

GAI ZERRENTA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea
2. 2009ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2010eko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. Auditorea izendatzea
5. 2009ko ekitaldiari dagozkion interesak sortzea eta 2009ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
6. Orga Jasotzaileak sekzioan 2009ko ekitaldiari dagozkion interesak kapitalizatzea
7. 2009ko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera
9. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
11. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena
12. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
15. Galderak eta eskaerak.

OHARRA: Bazkide guztiei gogorazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2010eko apirila

HEZKUNTA > JARDUNALDIAK

Ekokaleak lehiaketan Euskal Herriko eta Espainako 78 lan

A.E. > ARRASATE

Ekokaleak lehiaketako sari banaketa gaur egingo dute, *XXI. mendeko etxebizitza* jardunaldien barruan. Sariak 11:15ean banatuko dituzte Garaia Berrikuntza Gunean.

Ekokaleak lehiaketa aurrekaririk gabeko ekimen aitzindaria da. Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketak jarri du abian lehiaketa, bigarren urtez jarraian. Euskal Herriko eta Espainiako Lanbide Heziketako ikasleek

bidalitako 78 lan jaso dituzte Arizmendi. Sariak ematerakoan epaimahaiak kontuan hartuko du proiektuaren aurkezpena, estetika, originaltasuna eta erabilera arteko erlazioa.

SARIAK

Epaimahaiak lau lan onenak sarietako ditu; eta, gainera, Arizmendi ikastolako batxilergoko ikasleek Gazte Saria izeneko bi sari emango dituzte.

AURREFABRIKAZIOA

Goizeko bederatzietan, *XXI. mendeko etxebizitza/ Aurrefabrikazioa* jardunaldia egingo dute Garaian. Eraikuntza eta ingeniari enpresei, arkitekturen bulgoei, udaletako teknikarietara eta interes duen edonori zuzendutako hitzaldiak izango dira.

Aurrefabrikazioaren gainean jardungo dute; azalduko dute zer den aurrefabrikazioa eta kontzeptuak duen konnotazio negatiboa alde batera uzten saiatuko dira.

13:30ean mahai ingurua egingo dute eta 14:00etan, luntxa egingo da amaitzeko jardunaldia.



**ANDUZU
GARRAIOAK**

Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa | Era guztietako kargak

BERGARA
607 34 90 43

EKONOMIA > MAIATZAREN LEHENA

Sindikatu bakoitzak bere aldetik ospatuko du Maiatzaren 1a

Eguaztenean, Lan Osasunaren Egunaren harira, LABek elkarretaratzea egin zuen Bergarako bi mutualitateen aurrean

MIRIAN BITERI > BERGARA

Langileen Egunaren harira, sindikatuak mobilizazioak egingo dituzte bihar. Urtero moduan, ELAk Bilbon egin du hitzordua. Manifestazioa 11:30ean irtengo da Jesusen Bihotza plazatik. LAB, berriz, Eibarren elkartuko da, 12:00etan, Untzaga plazan. ESK sindikatuak aurten Gipuzkoa osorako deialdia egin du, 10:00etan, Errenteriako Alamedan. UGT eta CCOO, azkenik, batera joango dira. Donostian batuko dira, 12:00etan, Alderdi Ederren.

KONTZENTRAZIOA EGUAZTENEAN

Bestalde, eguaztenean, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira, LAB sindikatuak kontzentrazioa egin zuen Bergarako bi



Elkarretaratzea egin zuen eguaztenean LAB sindikatuak.

ANDER MONEDERO

mutualitate enpresaren egoitzen aurrean. Enpresa horien neurriek langileen osasunean eragin zuzena dutela salatu zuten; horren

harira, nabarmendu zuten langileek osatzeko behar duten denbora murriztu eta patronalaren interesen alde lan egiten dutela.

ELKARTASUNA > UMEAK

Banoia Txernobilekin elkartearen eskutik bederatzi ume etorriko dira udan gurera

M.B. > OÑATI

Urtero moduan, Debagoieneko familiek Txernobilgo umeak hartuko dituzte uda partean. Oñatiko Banoia Txernobilekin elkarteko Arantxa Zubiak jakinarazi digu aurten bederatzi neska-mutiko etorriko direla Debagoie-

nera. Horrekin batera, jakinarazi digu horietako batek abuztua bakarrik pasako duela gure artean eta gainerako zortziak ekainaren 26an, zapatua, iritsiko direla. Bi hilabete inguru igaroko dituzte hemen; abuztuaren 28ra arte, hain justu ere.

7-12 URTE BITARTEKOAK

Zubiak gaineratu digu 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak direla, eta aurretik ere Debagoienan egondakoak direla guztiak. Zortzi ume Oñatin pasatuko uda; bederatzigarrenak, Debagoieneko beste herri baten.

Aurora Hernandez > Gernikatik onik irtendakoa

"Gernika sutan zegoen babeslekutik irten nintzenerako"

M.B. > BERGARA

1920an, Eibarren jaio bazen ere, hiru aste bakarrik zituela joan zen Gernikara bizi izatera Aurora Hernandez. 1937ko apirilaren 26an, Gernikak jasandako bonbardaketatik onik irten zen. Gaur egun Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzan bizi da.

Joan den astelehenean 73 urte bete ziren Gernika bonbarda-

tu zutenetik. Egun berezia izan zen astelehena zuretako, Aurora?

Gogoan izan nuen, egunagatik beragatik eta komunikabideetan gogorarazi zutelako. Bonbardaketa astelehen baten izan zen eta aurten ere horrela tokatu da. Ahaztu ezin den eta bizitza osorako markatzen zaituen gertara da hori. Buruan dut, eta, hortaz, egunero datorkit burura.

Nola gogoratzen duzu 1937ko egun tragiko hura?

Bonbardaketa gertatu zenean, 17 urte nituen eta Talleres Gernikan nengoen lan egiten. Hango ugazabek babeslekuak eginak zituzten han eta alarma jotzen zuen bakoitzean han ezkutatzen ginen. Egun hartan alarmak jo zuen goizeko bostak aldera; hiru ordu egon ginen han, 08:00ak arte.

Babeslekuan pasa zenuen, orduan, bonbardaketa?

Bai. Ez genuen bonbardaketa ikusi eta babeslekutik irten ginerako Gernika sutan zegoen. Ez genuen ezer ikusi nahi, beldurgarria zen aurrean geneukan guztia.

Etxekoak onik irten ziren?

Bai. Bonbardaketa gertatu zenean guztiak geunden Gerni-



Aurora Hernandez.

M.B.

kan. Zortea izan genuen, guztiak onik irten ziren-eta. Gurasoak eta zazpi anai-arreba ginen. Dena dela, inguruko jende asko hil zen egun hartan.

JENDARTEA > ONDAREA

Debagoieneko museoak Aldundiaren webgunean

Gipuzkoako museoak batzen dituen webgunea sortu du Aldundiak

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Dagoeneko martxan da Gipuzkoako museoaren webgunea www.gipuzkoakomuseoak.net helbidean. Gipuzkoako museo, interpretazio zentro eta espazio museistiko guztien eskaintza herritarren eskura jartzea da atari berriaren helburua.

Debagoienari dagokionez, bost museo edo interpretazio zentzoren eskaintzak daude.

BAILARAKO MUSEOAK

Bergarako Errege Seminarioaren museoaren proiektua, Oñatin laster zabalduko duten Aizkorri-Aratz parketxea, Oñatiko Arrikruz kobak, Eskoriatzako Ibarraundi museoa, eta, Gatzagakako Gatz museoa dira atarian agertzen direnak.

Atari berriak sail ezberdinak ditu, betiere herritarrak, bere interesen beharretara hobekien egokitzen den aktibitate, gaia edo espazioa aurki

dezan. Hori da, hain zuzen, atariaren berrikuntza nabarmena. Iradokizunak ere egiten ditu erabiltzailearen profilararen arabera, eta irizpide zehatzaren arabera bilaketak ere egin ditzake. Modu honetan, erabiltzaileak gehien interesatzen zaizkion gaiak edo aktibitateak aukera ditzake.

GAIAREKIN LOTUTAKO ESKAINTZA

Historia, artea, gastronomia, itsasoa eta burdina dira, besteak beste, atarian aurki daitezkeen gaiak. Gainera, aukera ematen du ikusteko gaiarekin loturiko ze eskaintza ezagutu daitekeen; eta, gaiarekin loturiko ze aktibitate egin daitekeen familiarrean edo umeekin.

KUDEAKETAREN ARDURADUNA

Ondare Zuzendaritza Nagusia da atariaren kudeaketaren arduraduna, baina, Gipuzkoako museo eta zentroak dira eduki, aktibitate eta albisteen sortzaile. Ondare Zuzendaritzaren helburua da museoaren esku jartzea tresna berri hori, eta museo sarearen erakusleioa sortu. Ataria, Diputazioak aurkeztutako Museo Planaren barruan kokatzen da.

> GERTAKIZUNAK

Aretxabaletako 67 urteko gizonetako bat hil zen egunean, gidatzen zihoala bihotzekoak jota

Aretxabaletako 67 urteko gizonetako bat hil egin zen atzo, eguena, bihotzekoak jota; bihotzekoa gidatzen zihoala izan zuen. Arrasateetik Aretxabaletako noranzkoan autoan zihoala hasi zen ondoezik sentitzen, eta San Andres auzoko Fagor Arrasate lantegi parean gelditu zen, SOS Deietara deitzeko, Ertzaintzak jakinarazi duenez. Abisua 14:45 aldera jaso zuten larrialdi zerbitzuek. Arrasateko udaltzainak, ertzaingak eta ambulanzia bat joan ziren segituan, eta gizonetako erreanimatzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu, eta handik gutxira medikuak heriotza zertifikatu zuen. Gorpua estali egin zuten, eta epaileak heriotza egiaztatu ondoren, eraman egin zuten lekutik.

Bizi ginen ganbara gauerdian jausi zen. Bilbora joaten ziren tren bereziak jarri zituzten eta horietako baten sartu nintzen; osaba-izebak nituen Bilbon eta haien etxera joan nintzen. Han, baina, ez zegoen niretako tokirik, eta errefuxiatuendako etxe batera joan nintzen. Gero, Eibarrera joan nintzen bizi izatera, eta ordutik hona ez naiz Gernikara bueltatu. Bestalde, bonbardaketa gertatu eta egun gutxira, hiru arreba Frantziara eraman zituzten.

Zer sentitzen duzu bonbardaketa agindu zutenengatik?

Ez diet ezer txarrik opa, miserable hutsak direlako. Bonbardaketa egon izan ez balitz, Gernikan egongo ginen oraindik, gurasoak finak zirelako lanean. Horrelakorik osteria ere gerta ez dadin nahi dut; besterik ez.



zabalik

Andoni Urzelai

Eyjafjalla

Horrelaxe du izena Europa osoa hankaz gora jarri duen ditzosozko sumendiak. Ditzosozko eta zorionekoak, dena esate aldera.

Eta zorionekoak esaten dut, behingoagatik bada ere sumendiak Europako biztanleoi lelo usaiak errotik kendu dizkigulako.

Naturak emanak ditu aurrez ere hainbat danbeteo eta buruhauste; eta askotan, kalte izugarriak eraginaz, gainera.

Hala ere, normalean, naturaren zaplazteko horiek Afrika, Asia edo Hego Amerikako herri txiroenetan pairatu izan dituzte beti.

Eta horra nola diren gauzak, zer eta bat-batean sumendi baten eztandak gure, herrialde aberats ahalguztidun garenon aire-espazio oso-oso lur jota utzi duen.

Tarteka onak iruditzen zaizkit naturaren abisuak. Izan ere, badirudi guztia duela gizakiak kontrolpean, eta, horrenbestez, nahi duena egin dezakeela nahi duen unean. Ba, hara, jaunak, putza!

Hutsaren hurrengoa gara, hori bistan da; ez gaitezen, beraz, lartxo harrotu.

Halako zerbait esatera dator kigu natura oraingo honetan. Edo niri hala iruditzen zait, behintzat.

Okerrena da hilabete batzuen buruan inor gutxi gogoratu dela gertatu denaz, eta berriz hasiko garela aire, itsaso edo errepideak ziztuan gurutzatu nahian, inguruak txikituz, natura mesprextatuz, mundua kakaztuz, finean, super-gizonak bagina bezala mundua gobernatu eta ama-lurra larrutuz, eta halako batean... Danbadum! Eta akabo guztia!

Harrotasunak beti dakar gero lotsaren arrastoa atzean.

usteak uste


Edu Mendibil

Txosten eta inkesta egileak

Atez ateko zabor bilketa ekonomikoki eta ekologikoki bideragarria da Debagoienean. Halaxe dio Mankomunitateak jaso duen bideragarritasun txostenak. Pedro Lasagabaster Mankomunitateko Ingurumen batzordeburua ere atez ateko sistemaren aldekoa da eta batzordeko kide gehienak bat omen datoz Lasagabasterekin. Beraz, badirudi nahiko argi dagoela zein sistemaren alde egingo duen Mankomunitateak. Dena dela, txosten eta inkesten aurrean gero eta mesfidantza handiagoa daukat nik. Nork agindu, haren alde egiten dute beti.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Garaipenean eredu; porrotean, ez hainbeste

Joxe Aranzabal

http://goiena.net/blogak/faroa/

Atzo triste oheratu nintzen, ikusita Barça zelan geratu zen kanporatuta, Inter Milangoari 1-0 irabazita eta ikusita zein gaizki erantzun zion porrotari: Interko jokalariek hasi zirenean balentria ospatzen, Barça piztu egin zituen zelaiko ihintzagailuak. Valdesek lepotik oratu zion Mourinhori, sutan honen jarrerarekin garaipena ospatzeko.

Interren estiloa ez da ikusgarria, atzo hamar jokalarri jarri zituen defendatzen, baina talde bakoitzak aukeratzen du nahi duen taktika. Interrek egin zuen komeni zitzaion partida. Barça atzo ez zuen asmatu berea eginen. Aurten Barça ez da ibili iaz bezain ondo.

Nahiko nuke atzoko porrotea Barçak ikasiko balu porrotean ere ereduargi izan behar dela, porrota, berez, beti mingarria den arren.

Teoria eta patrika

Anjel Lertxundi

http://berria.info/blogak/lertxundi/

Nola uztartu teoria eta patrika?, galdetzen du Txistu y tamboliñ blogak.

Nola ezkondu solidaritatea eta interesa? Gutako bakoitzaren zalantza existentzial asko dilema horren sokan dabil txerpolarri. Bertute eta diruaren arteko dialektika horrek eraginak dira euskal kontzertu ekonomikoaren inguruko kalapitak ere. Europako estatuek dilema horri eman dizkion erantzunen narrazioa da Europar Batasunaren historia, eta historia horren orain arteko azken kapituluaren ere –nola erantzun Greziako krisi ekonomikari?– hori dago jokoan: nola uztartu europar solidaritatearen teoria eta estatu bakoitzak zaindu nahi duen patrika?

Bertutearen bideak aldapatsuak dira oso, galdetu bestela alemani: aspertuta daude beti eskuzabalenak izaten, eta haiek ere Horazio zaharraren aholkura itzuli dira ("Lehenik egik dirua; gero etorriko duk bertutea"), baina esaldiaren ironiari erreparatu gabe.

koplak

Xabier Igoa

Lan onari jarriak

Denon nahia ta irrika, aspaldian mila zita, egin duzue gaztetxe bueltan hilabete bat polita!

Kontzertu ikuskizuna eta Gaztetxe eguna, denetik dago aukeran eta hartu zuk gura dozuna!

Izan dira garai onak, ahaleginak guztionak, ta horregatik eskerririk asko ta guztioi zorionak!

Lanean hainbeste lagun ta jaia gau eta egun, bide ona da eta bertatik pozik jarraitu dezagun!

Nola bukatzera noan, aipamentxo bat gaurkoan, adierazteko oraindik bera daukagula guk gogoan!

Mendiak eraman zuen, nahiz nahi genukeen hemen, hark utzitako garra mantentzen denok saiatu gaitezen!

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Saietako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarriko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ibaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Eskerrak oñatjarren ahaleginari

**Santiago Ugarte eta
Jose Luis Fernandez**

(*Egunkaria*-ren aldeko Oñatiko batzordearen izenean)
Oñati

Pasa den apirilaren 12an jakin zen *Egunkaria* auzi nagusiko epaiketaren sententzia. Sententzia horrek kargurik gabe absolutu ditu auzipetuta zeuden bost akusatuak: Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uri, Martxelo Otamendi, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga. Epaiketaren zehar eta baita honen aurretik ere akusatuek babes zabala jaso dute herritarren artean batean eta bestean eta era horretan osatu den solidaritate uholde erraldoia oso lagungarria izan da azken epaian.

Oñatiko herrian ere eman da *Egunkaria*-rekiko eta auzipetuekiko babes. Idatzi honen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu babes eta laguntza eskaini duzuen herritar guztiei; epaiketaren gastuei aurre egiteko bonoak edo kamisetak erosiz, elkarreartzeetan parte hartuz edo modu baten edo bestean babes hori eskaini duzuenoien egindako ahalegina eskertu nahi dizuegu, dena baliagarria izan delako.

Kaleratu berri den epaia albiste pozgarria izan da, auzia zuzentze aldera urratsa eman da. Baina *Euskaldunon Egunkaria*-rekin egindako bidegabekeria, eta oraindik ere egiten ari direna, ez da inondik ere konpondu. Komunikabide bat itxi zen (oso gertaera larria sistema demokratikoetan), hain zuzen, euskaraz argitaratzen zen bakarra; horrez gain, atxilotuak egon ziren, hauek inkomunikatuta pasatutako egunak, torturak eta batzuentzat kartzela. Hori guztia ozen salatu beharra dago.

Horrez gain, gogoratu behar da *Egunkaria*-ren inguruan beste auzi bat irekita

dagoela, auzi ekonomikoa, eta bertan zortzi akusatu daudela delitu ekonomikoengatik. Hauek ere Auzitegi Nazionalen epaituko dituzte eta huentzat zigor eskaera are handiagoak eskatzen dituzte.

Albiste pozgarria izan da epaiarena, ahalegin handia egin da lortzeko eta hori eskertu egin behar da, baina adi egotea dagokigu oraindik ere *Egunkaria*-ren auzi ekonomikoa hor dagoelako.

Erramu Zapatua, urte askotarako

Beñat Iñarra, Iñaki Mondragon, Iñigo Arregi, Aritz Alustiza eta Aitor Aranzabal

(Erramu Zapatuko lagun taldea)
Bergara

Badira jada 3 urte Erramu Zapatua indartu behar zela ikusita lagun talde bat batu ginela. Bi arrazoi nagusi aurkitu genituen horretarako: alde batetik, euskal nortasuna eta ohiturak bultzatzea; eta bestetik, goizeko egitarau bat egun guztikoa bihurtu zedin lortzea.

Aurtengo edizioa ere joan zaigu eta balorazio positiboa egiten dugu. Herri bazkarian jende asko eta giro ezin hobea egon da. Aurten berrikuntza izan den haurren txokoa ere jendetsua izan da, 25 bat umerekin. Herritarrez osatutako txarangarekin kale animazio ikaragarria, aspaldi ikusi gabekoa eta amaitzeko gaueko kontzertu arrakastatsuak.

Hala ere, hau guztia ez litzateke posible izango herriko hainbat merkatariri esker izan ez balitz. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Ogizun eta Konde okindegiei, Bixain harategiari, Mujika, Raizabal eta Larrañaga gozotegiei, Miner ardoei, Agorrosin jatetxeari, Kortazar eta Frontoiko tabernei eta Berroia inprentari. Honez gain, baita sukaldari eta zerbitzariak, egindako lan apartagatik. Ezin ditugu ahaztu ezta ere Jardun Euskara

Elkartea eta txarangakoak. Azkenik, baita Bergarako Udalarari ere.

Baina jakin badakigu oraindik gauza asko daudela hobetzeko eta horretarako zuen (herritarren) iritzia eta laguntza behar dugu. Honela, pertsona gehiagoren artean gauzak hobe eta errazago egiten baitira. Beraz, animatu. Ametsa egia bihurtzen jarraitzeko.

Besterik gabe, eskerrak asko eta hurren arte.

Historiaren istorioak

Jon Ander Ramos Martinez

(Historialaria)
Arrasate

Arrasate herriaren hiritgutunaren 750. urteurrena betetzear dagoenean, gertaera historiko horren inguruko tirabirek bere horretan jarraitzen dute. Alderdikeriaz, politikaz eta abarrez haratago ikusi beharrea aurkitzen gara, gure herriaren historiaren nondik norakoak jokoan dauden honetan.

Maiz harriduraz ikusten dugu historialariok gure zientziak jasotzen duen tratamendua; atentzio gutxi eta seriotasun falta izan baitira sarritan bidelagun, gertaera historikoak norberaren aldeko edo kontrako bihurtzeko dagoen ohituraz jabeturik. Historia ikasketak egitea bigarren edo hirugarren edo milagarren aukera moduan ikusten den arren, badirudi, ostera, Historiaz edozeinek dakiela, "todologoien" mundu honetan. Ingeniaritza eta halako ikasketak egitearen alde borrokatu ezin den krisi garai honetan, historialariok gure ogibidearen defentsan agertu behar dugu, historia bigarren plano horretatik ateratzeko.

Harriek, pergaminoek, paperek, eraikinek eta era guztietako dokumentuek hitz egiteko aukera izan behar dute, eta guk irakurtzeko. Lezetxikin gertatutakoa gogora ekarri

behar dugu, noski!, baita Murugaineko kastroan bizi zirenen gorabeherak ere (eta horien inguruko jardunaldiak antolatu ere). Baina ezin ditugu alboratu eta erdi txanda-pasa egin Erdi Aroan, Aro Berrian zein Aro Garaikidean gure herrian izandako gertakariak, horiek dutelako gure egungo errealitatearen gakoak. Honekin, gure herriaren historiari, kalte barik, mesede egingo diogu.

Izan garenaz, garenaz eta izango garenaz jakin behar dugu. Gure ondorengoek izan garen horren berri izateko, denok batera eta denbora alperrik galdu gabe gure herriaren historiaren alde egin behar dugu, bigarren mailako beste istorio guzti horiek bazterturik.

Duintasun aisialdirik!?

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Zer aisialdi du gaurko gizarteak, mundu osoan? Telebista, irrata, konpak disk-a (edo Interneten musika edo bideoa aditu). Eraginkorrena, telebista aztertuz, zer da? Gizatasuna simulatzen du, baina noski, gailu elektronikoa bat da. Denbora asko ematen du herriari aisialdi honekin; zergatik? Merkea delako. Hiru ordu eta erdi egunero, hain zuzen ere. Denbora horretan pertsona ez kalera irteten (kaleak hutsik daude), ez du irakurtzen, ez du kirolik praktikatzen, ez du paseatzen, ez du sendan komunikazioa eta arreta, gailu hau da bere relax.

Zer du gailu honek? Bortxakeriaz betetako pelikulak, leloak diren programa arrosak, pornografia gauetan, edo DVDz, prefabrikatuta lehiaketak, dramatismo ustelezko kulebroiak, pausarik gabeko informazio azkarregia eta manipulatu, eta betiko animalei buruzko dokumentalak. Morboa elikatzen du telebistak, amarrukeriaz edo maliziaz

betea da. Jaun-andreok, hiru gailu hauen aisialdia ez da duina, pasiboa, inaktiboa eta toxina psikologikoz beteak dira. Merkea den oro ez da mauka. Gizartearen mentalitatea markatzen dute hiru gailuok, sortu zirenetik arras aldatu dena. Bizitasuna falta zaio gizarteari, kasta.

Batzuek ez dute gailuok gutxi baino kontsumitzen; hobe horrela. Kalitatezko jendea ere badago, baina etxean dituzte gailuak, eta tentaldia hor dago, eta tentaldia puskatu egin behar da; gailua, beraz. Garbiketa bat egin behar da gizartean, munduan, gailuok debekatu. Bai iraultza argi esanda, gogorra den iraultza, baina beharrezkoa. Buru eta gogo toxinez garbitu behar da gizakia, aisialdi aktiboaren alde, sormena duena. Ekintzaila behar dugu gizartea. Iraultza egin, jazarri gero merkatu beltza. Hori egingo duen gobernu bat behar dugu.

Agian zuri gertatzen zaizu niri bezala, ez naizela etxearen jabe eta sendia gogoko duela telebistaren morboa. Aldatu dezagun mundu hau, kideok, isiltasun, herri giro eta duintasunaren alde. Beste mundu bat bai da posible.

Zomorroak Txaetako 'igerilekuan'

Luis Mari Gonzalez
Arrasate

Azkenaldian, Txaeta eta Aprendizen kaleko bizilagunok zomorro ugari jasan behar izaten ditugu etxeetan. Izan ere, etxe berriak eraikitzeak lurra garbitzeko lanak hasi zituzten, eta lanak gelditu daude orain momentuan. Bada, izugarritzko ur putzua dago bertan eta, horren ondorioz, intsektuak ugari egin dira asteotan. Dagokionari eskatzen diogu putzua hustu edo zerbait egiteko, leihoak zabalduz gero etxea zomorroz betetzen zaigu eta. Eskerrak asko.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



**Barrenkalea 33
20570 BERGARA**



**Telefonoa:
943 25 05 05**



**Faxa:
943 25 05 12**



**Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com**



Finantzaketa kuota personalizatuak

**SIMS
SERVIMASA**

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Mila Elortza AHT Gelditu! Elkarlaneko bozeramaileak dio Abiadura Handiko Trena ez dela eredu, ez dela aukera eta ez dela duela, herritarrak gerturatze-ko ez duela balio eta "Paris Madrilekin lotzeko pentsatuta" dagoela. Ez dauka zalantzarik: erreferenduma antolatuko balitz "ezezkoa aterako litzateke".

Mila Elortza > AHT Gelditu! Elkarlaneko bozeramailea

"AHTren aurka egiten du informazio on eta benetakoa daukan guztiak"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Angiozarko alkatea da eta urte asko daramatza Abiadura Handiko Trenaren aurka. Bizi den bailara txikitu egingo dutela diote. AHT Gelditu! Elkarlaneko bozeramaileak proiektuaren gainean dihardu.

Joan den domekan egin zenuen ibilaldia Arrasate eta Aramaio artean, Abiadura Handiko Trenaren lanen eragina ikusteko. Zelan?

Ondo joan zen. Nabarmentzekoa da jendearen harridura lanen inpaktuagatik. Ez zuten inondik inora espero lanak horren aurrerata egongo zirenik, ezta kalteak horren handiak izango zirenik. Inguruan bizi direnak larrutik ordaintzen dabilta azpiegitura honen ondorioak.

Besteak beste, nekazari lurrei, baserritarrei, eragingo die AHTk, ezta?

Bai; eskualde honetan Udalatx izango da kaltetuena, lau tunel egingo dituzte-eta. Baina Aramaio bailara ere zeharo puskatuko dute; Elorrio, Atxondo aldea txikitu, eta Angiozar ez dut pentsatu ere egin nahi zelan geratuko den.

Emaizkiguzu hiru arrazoi Euskal Y-aren aurka egoteko.

Arrazoi asko daude. Hasteko, inposizioa izan da. Ez dute informazio ganorazkorik eman proiektuaren gainean. Joan deneko 20 urteotan dabilta proiektuarekin, baina ezkutatu egin dute herritarrak ez daitezen enteratu izango duen kalteaz, konturatu dira-eta informazioa daukan herritarra proiektu honen aurka dagoela. Bigarrenik, ze ondorio izango ditu lurtean? Zer gertatuko da leizeekin, akuiferoekin...? Eta, azkenik, ekonomia bultzatzeko proiektua dela diote, baina ez dago aurreikuspenik horren gainean. Ez da alternatiba edo aukera, obra hau oso-oso garestia delako, ez dauka etorririk.

Alternatibarik?

Ez dago obra horren alternatiba zehatzik, jendarte eta ekonomia eredu aldaketa ez bada. Bide honetatik ez goaz inora. Lehenbizi, oraingo bideak erabili behar dira. Bestalde, garraioa murriztu egin behar da. Ez dauka zentzurik, esaterako, ura Granadatik hona garraiatzea. Bertakoa kontsumitu behar da.

Oraingo trenbidearen trazatua hobetzea...

Izan daiteke aukera. Esaterako, Irundik Madrilerara doan Alalaria trena azkar-azkar doa. Gaur egungo trenbideak lur azpian sartu, tramuak hobetu...

Obraren eragina bistakoa da Eskoriatzan, Aramaion... Las-ter ikusiko ditugu zubi-bideak Bergaran, Antzuolan...

Bergara eta Antzuola zeharkatu eta Donostiarantz doan zatia atzeratuago doa. Eusko Jaurraltzak egingo du hori. Madrildik, Gasteiz eta Bilbo arteko zatiari eman diote lehentasuna, besteak beste, Frantziar zalantza handiagoak dituztelako Paristik Hendaiarainoko tartearekin. Frantziar, demokrazia garatuago dago eta herritarrei kasu handiagoa egiten zaie.

Angiozarko bailaran, ingurumenari inpakturik handiena egingo dion trazatua aukeratu da azkenean.

Trazatu hori hobetsi zuten hasieratik, aurreproiektua egin zutenean, eta horri heldu diote, aldatzeko eskariak egon arren. Angiozarko herri batzarrak orain dela 10 bat urte egin zuen eskaria trazatua aldatzeko eta Deba-goienerako Mankomunitateak eskaria babestea lortu genuen. Baina ez ziguten kasurik egin. Orain, Lamiategi elkarteak sortu da, kaltetuen elkarteak, eta berriro egin dute eskaera, baina ezezkoa izan da erantzuna.

Zelan baloratzen duzu Aramaio alkatea auzipetu izana AHTren gaineko herri galdeketa antolatzeagatik?

AHT Gelditu! Elkarlanak bultzatutako herri galdeketa izan zen. Eta alkateak aukera eman zien herritarrei gai honen gainean iritzia emateko. Hori egitearren zigortu nahi dute. Zer gutxiago eskatu alkate bati, herritar batzuen eskaera bati bide egitea baino.

Epaiketa zelan joan zen?

Fiskalak eskatu zuen 9 urtez erakundeetako kide izateko gaitasunik barik lagatzea. Ez dugu uste epaileak hori erabakiko duenik. Elkartasun mezu asko jaso ditu alkateak; UPNk gobernatzeko dituen udalbatik ere etorri dira. Larria da eta zeresana ematen du, demokrazia batean, herriari galdetearren auzipetua izateak.

Cuatrocientosen luiziarekin gertatutakoaren gainean zer iritzi duzu?



Mila Elortza, AHT Gelditu! Elkarlaneko bozeramailea.

ENEKO AZKARATE

AHT ETA EKONOMIA

"AHT ez da alternatiba edo aukera, obra hau oso-oso garestia delako, ez dauka etorririk"

ARAMAIOKO HERRI GALDEKETA

"Zer gutxiago eskatu alkate bati, herritar batzuen eskaera bati bide egitea baino"

Susmoa daukagu nahita laga diotela maldari jausten. Modu horretan, errepidea itxita, lasaia- go dabilta lanean trenbidea egiteko lanetan. Aramaio Udalak abisua eman zuen eta neurriak hartzeko eskaera egin zuen, baina ez zuten jaramonik egin.

Zelan eragin zion AHTren kontrako mugimenduari ETAK Inaxio Uria hil izana?

Kolpe gogorra izan zen, geure artean eztabaidak sortu zituelako. Argi geneukan, halere, zein zen gure egitekoa eta bidea: herrita-

rrak informatzea eta jendarte aktibatzea AHT gelditzeko. Askok aprobetxatu zuten geure mugimendua kakazteko.

Eta ze balorazio egiten duzu hil-keta harena?

Ez gara sartuko hori eztabaidatzen edo baloratzen; izan ere, AHT Gelditu! Elkarlanean herritar asko daude eta bakoitzak dauka iritzi bat gai horren inguruan.

Jaurraltzak gai honen gaineko erreferenduma antolatuko balu, ezezkoa aterako litzateke?

Bai. Benetako eta egiazko informazioa daukanak proiektu honen aurka egiten du. Hau ez da trena, honek ez ditu herriak lotzen, ez du zerbitzurik ematen. Paris eta Madril lotzeko pentsatuta dago, besterik ez.

EAJ, PSE-EE eta PP AHTren alde daude eta boto gehien dituztenak dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

Alderdiak posizio hori daukate, baina zer pentsatzen dute alderdi horien boto-emaeleek? Legution, EA zegoen alkatetzan eta AHTren alde zegoen EA, baina hango alkatea eta udalbatza izan ziren lehenengoak proiektu honen aurka egin zutenak, uste zutelako herritarrak kontra zedela. ELA, LAB, EHNE, ESK, STEE, Hiru... kontra daude. Hor badago beste gehiengo sozial bat. Legebiltzarra da demokraziaren adibide bakarra? Oso urria iruditzen zait.

Frantziatik AHT Hendaiaraino helduko da?

Zalantza asko daukat. Han, gure aldean kontzientzia handia dago eta bertako biztanleak oso konbentzitu daude proiektuak dakartzen kalteez.

Europako Parlamentura Abiadura Handiko Trenaren kontrako agiri bat eroango duzue, ezta?

Bai, maiatzaren 19an izango da. Estrasburgo eztabaidatuko da. Eskatzen dugu erabaki ahalmena herritarrek eduki behar dutela. Baita, baliabide guztiak aztertu behar direla eta azpiegitura berririk ez eraikitzeke. Azkenik, Europa osoak daukan arazoa dela eta globalki heldu behar zaiola gaiari.

goiena.net/bideoak


Elkarrizketa osoa, webgunean.

HIPOTEKA
GARDENAK
KARTEL HAU
BEZALAKOXEAK.
KUTXAKO
HIPOTEKEK
ZORURIK EZ.

**ONURAZ BETEAK ETA ZER EZKUTATURIK GABEAK.
HORRELAKOXEAK DIRA KUTXAKO HIPOTEKAK, GIPUZKOAR
GEHIENEN KONFIANTZA IZAN DUTENAK.**

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

zer nahi duzu bihar?


www.kutxa.net

 kutxa

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Arlutz taberna



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54



Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetscea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Lotoak eta kinielak

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

IOSU

*taberna
harategia*

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **BERGARA**
Errekaldeko lorategia zaharberitu egin nahi du Udalak > 17



> **OÑATI**
Saskibaloitza taldeak etzi lor dezake Lehenengo Mailara igoera > 21



> **ARETXABALETA**
Herriari 7,98ko nota ipini diote inkestatutako 518 herritarrek > 22



> **ESKORIATZA**
Aranburuzabalako azken 8 familiak itzul daitezke etxera > 24

ARRASATE > JENDARTEA

Emakumeak eta herritar guztiak batu gura ditu Ekinek gaurko jaian

OMENALDIA

Ekin elkarteak sortu zuten zazpi emakumeak omenduko dituzte

EKINTZAK

Arratsalde osoan izango dira ekintzak ume eta helduendako, 17:00etan hasita

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Ekin Emakumeak elkarteak 15 urte ditu aurten, eta urteurren horretako ospakizun nagusia egingo du gaur, egubakoitza, arratsaldean. Ekitaldi nagusia, eta hunkigarriena ere, seguruenik, izango da Ekin sortu zuten emakumeei egingo dieten omenaldia, gorazarrea: Marilu Ajuria, Lurdes Azkarate, Marije Salterain, Arantxa Sanchez, Ana Untzalu, Lurdes Uralde eta Bittori Etxebarria dira 1995ean Ekin Emakumeak elkarteak sortu zutenak. Denak ezin izango dira etorri, baina denak gogoan izango dituzte Ekinekoek.

Ekintzak 17:00etan hasiko dira, eta arratsalde osoan, ume eta helduendako hainbat ekitaldi izango dira (ikus taula). Maite Uribarren Ekineko ordezkariak dioenez, "helburua da Ekinen inguruan ibili diren emakumeak batzea, baina baita gainerako herritarrak ere".

Urteurren borobil honetako ospakizunek jarraitu egingo dute: Maite Uribarren Ekineko kideak esaten duenez, "sortzaileen testigantzak jasoko dituen eta Ekinen iraganaz, gaur egunekoaz eta etorkizunaz jardungo duen bideoa egingo asmoa" dute, eta argazki lehiaketa bat antolatze-ko asmoa ere badaukate.

ETORKINEI HARRERA

Gaur egun, Ekin elkarteak zuzendaritza eta lantaldeak hogeita bat lagunak osatzen dituzte, baina elkarteak askoz jende gehiago



Urteurrenko lantaldea: Rufina Olasagasti, Maite Uribarren, Tamara Perez, Miren Arregi, M. Jose Bolinaga eta Ainhoa Astigarraga.

LEIRE KORTABARRIA

mugitzen du: hala, Ekinek urte-rik urtera antolatzen dituen eskulan eta orratz-lan ikastaroetan badabilta 30 bat emakume; eta kopuru hori bikoiztu egiten da etorkinen inguruko ekintzen kasuan.

Hain zuzen ere, etorkinengako harrera eta eurekin lana

da Ekinek azken bost urteotan indarrez garatzen joan den lan esparrua, garrantzi handikoa, izan ere: hala, harrera eta formazio modulu bat dauka Ekinek, Arrasateko eta kanpotik etorritako pertsonen artean harremana sortzeko eta berdintasuna sustatzeko; baita Euskal Herri-

ko eta Arrasateko errealitatea eta euskara hobeto ezagutzen laguntzeko ere.

Etorkinengako arreta lana berri samarra bada ere, guztiz bat egiten du Ekinen filosofiarekin eta helburuekin, emakumeen erabateko integrazioaren alde lan egingo sortu baitzen elkarteak.

TALOAK IKUR BIHURTU DIRA

Hortaz, funtsean, Ekin elkarteak ez da asko aldatu hasiera haietatik. Hasierako urteetan Ekineko kide zen eta gaur egun ere elkarretetik gertu jarraitzen duen Rufina Olasagastik hauxe dio: "Emakumeak garrantzitsuak ziren, eta horregatik hasi ginen lanean. Hitzaldiak, ikastaroak... antolatzen genituen, eta baita irteerak ere, orduan ezohikoak zirenak. Orduan martxan jarri ziren eskulan eta orratz-lanek estimazio handia izan dute beti; eta jarraitzen dugu sukaldaritza, osasuna eta heziketa lantzen". Eta gogora ekartzen digu Ekinen ikurretako bat bihurtu den talogintza: "Gure burua finantzatzeko hasi ginen taloak egiten, eta baita euskal gastronomian galdu samar zegoen elementu bat berreskuratzeko ere". Horregatik egoten dira gaur egun Arrasateko jai gehienetan Ekineko emakumeak taloak egiten eta saltzen.

ETORKIN BATEN ESKER ONA

"Hemen, zuen artean bizitzen jarraitzeko, zuen lana oso inportantea izan da"

Ekinera inguratzen diren etorkinei Euskal Herria hobeto ezagutzen laguntzen diete elkarteak, eta etorkinak ere "euskaraz bizi izateko edo, gutxienez, euskararekiko sentsibiltatea pizteko" lan egiten du elkarteak. Bada, lan horrek eman ditu bere fruituak. Hala, GOIENKARIAren bidez mezu hau bidali gura izan du lagun batek: "Abbas Ghullam naiz, Pakistan-koa, eta orain dela urte eta erdi bizi naiz hemen, Arrasaten, zuen artean. Ekin elkarteak jendea ezagutzeko eta herrian integratzeko aukera aurkitu dut eta ez da erraza hori guztia hitzez eskertzea. Hemen, Arrasaten, zuen artean, bizitzen jarraitzeko gogoak daukat eta zuen lana oso inportantea izan da horretarako. 15 urte eta gero. Gaueko lana, egun argian ageri. Zorionak eta mila esker".

Gaur, apirilak 30, jaialdia

17:00 Ume eta helduendako tailerrak Seber Altuben.

17:00 Ekineko emakumeen eskulan eta argazkien erakusketa Kulturatan.

18:00 Taloak Seber Altuben.

19:00 Goikobaluko emakumeen kantaldia Kulturateko areto nagusian, eta Ekinen sortzaileei omenaldia.

Segidan, Bi gira saioa irabazle Bea eta Mirenen emanaldia eta luntxa.



Igogailuak eta pasabideak argazkiko itxura izango dute.

TELLERIA ZUECO-UDALA

OBRAK > IRISGARRITASUNA

Gorostizarako igogailua, irailerako gertu

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Irailerako erabilgarri egon behar luke Bizkaia etorbidea eta Gorostiza-Malvinak- auzoa lotuko dituen igogailuak. Apirilaren 19an hasi ziren obrak, eta Udalak lau hilabete eta hiru asteko epea eman dio Obegisa enpresa eraikitzaileari lanak amaitzen. Obren zuzendaritza Telleria-Zueco enpresaren ardura da.

Egungo igogailuak Bizkaia etorbidea eta Gorostiza auzotik Monterron parkeraino heltzen den bidea lotzen ditu. Bada, hasi-

berri diren obren helburua da igogailu publikoa Gorostiza auzora arte luzatzea; hau da, egungo igogailuari beste solairu bat gehitzea.

DISEINU IKUSGARRIA

12 metro luzatuko dute, eta dorretxo bat egokituko dute igogailuaren goialdean. Dorretxoak diseinu ikusgarria izango du eta oinezkoendako pasabide bat ere eraikiko dute, igogailua eta auzoa lotuko dituen. Udalak obrak hasi baino lehen zehaztu zuen aurrekontua 247.000 euro izan zen.

KILIKI ETA ERRALDOIAK

Konpartsak zapatuko partaidetza eskertu du

J.B. > ARRASATE

"Zapatuko jaiaren parte hartu duten guztiei, eskerririk asko". Iñaki Azkoaga erraldoi eta kilikien konpartsako arduradunaren hitzak dira; pozik, zapatuko jaialdia "arrakasta borobila" izan zelako. Horrez gain, bildots eta ardo botilen zozketako zenbaki saritua 262 dela gogorarazi du Azkoagak.

KAMISETENDAKO, TTUKUNERA

Bestalde, zapatuan konpartsaren haurrendako kamisetak agortu egin ziren. Oraindik badago aukera kamiseta lortzeko; Ttukun fotokopia dendan eskatu behar dira.

Aitzol Altuna > Historia ikertzailea

"Memoria barik oso manipulagarriak gara etsaien aurrean"

J.B. > ARRASATE

Arrasatek hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete direla eta Udalak antolatu duen hitzaldi zikloko bigarren saioa egin zen eguaztenean bilkuren aretoan: 1200. *Lurraldetasunaren galera*. Aitzol Altuna (Galdakao, 1971) izan zen hizlaria; besteak beste, euskaldunok "ezer baino lehen" nafarrak garela ahaztu dugula dio.

Nola joan da hitzaldia?

Ondo, espero baino hobeto. 50 bat lagun bildu dira eta azalpenak arretaz jarraitu dituzte; interesgarria izan da. Hitzaldiaren osteko eztabaida larregi luzatu da, ikusle batek bere diskurtso propioa bota duelako. Baina hala-koak ohikoak dira.

Nafarrak garela ahaztu dugula aipatu duzu. Zergatik?

Kolonizazioa ez da fisikoa bakarrik izan, psikologikoa ere izan da. Ekinaren ekinez lortu dute, esaterako, gure hizkuntza hainbat esparrutan desagertzea. Gure nafartasun izaeraren kontra egin dute, eta, neurri baten, lortu egin dute, askok ahaztu egin dute eta nondik gatozen.

Ni euskalduna naiz eta hori gurasoei zor diet. Baina orain hamar urte konturatu nintzen euskalduna izatea Nafarroari zor niola, duela 800 urte inguru estatu bat ginelako. Estatu horretatik, hain justu, mantentzen dugu euskaldun izaera.

Hitzaldian aditzera eman dituzun hainbat datu ezezagunak ziren askorendako. Ez dugu gure historia ezagutzen, ala?



Aitzol Altuna, hitzaldia egin aurretik.

J.B.

Hala da, ez dugu gure iragana ezagutzen. Oso herri zaharra gara eta badirudi sortu berri den herria garela, ez dugulako memoria historikorik. Gure historia berreskuratzea oso garrantzitsua da, memoria historiko barik oso

manipulagarriak gara eta etsaien aurrean. Etsaiak baditugu, eta oso handiak, gainera.

Arrasatek hiri-gutuna jaso zueneko 750. urteurrena ospatzearen kontrakoa zara, beraz.

Gaztela hiribilduak sortzen hasi zen Nafarroako erreinuko erasoei aurre egiteko; hau da, gaztelaren defentsa lineak sortzeko. Gure kontra sortutako hiribilduak dira. Beraz, urteurrena ospatzek ez du zentzurik.

Ospatu ez, baina ezta ahaztu ere, hortaz. Zer deritzozu halako ekimenak antolatzeari?

Oso ondo deritzot, eta horregatik Udala zoriondu gura dut. Duela 750 urte bihurtu ginen hiribildu, baina gure interesen aurka izan zen. Eta hori gogora ekartzea oso positiboa da. Noski, ez da nahikoa; gure historia txikitatik irakatsi behar digute, eskolan.

DRAME &
IGARLEA - MEDIUMA

Edozein arazo konpontzen dut, nahiz eta zaila izan: maitasuna, lana, arazo familiarra...

672 55 14 44
945 10 94 03

BASATI
TABERNA

943 711762

Cesar Bueno - Umore saioa
Apirilak 30 - 00:00etatik aurrera

IAMAIXO X. URTEURREN JAIA

Maiatzak 1, 23:00etatik aurrera
GLOBAL FUNK

SKA
FUNKY
SOUL
DANCEBALL
HIP-HOP
BREAKBEAT
SWING
JUNGLE

• Garagardoa: 1€
• Kalimotxo: 2€
• Konbinatua: 3€

DJ Makala
Lehenengo aldiz Arrasaten

IAMAIA NTZOKIA
ARRASATE

Kontzezino kalea 14
ARRASATE

SAN ANDRESEKO JAIAK 2010

ARRASATE

Apirilak, 30, egubakoitza

19:30 Etxafleroak eta buruhandiak jaiei hasiera emateko.
22:30 La Madriguera eta Matxibrada Rock taldeak.

Maiatzak 1, zapatua

10:00 Diana Bilboko gaiteroekin.
11:00/14:00 Haur parkea eta aurpegia margotzeko tailerra.
12:00/14:00 Poteoa Bilboko gaiteroekin.
14:00 Herri bazkaria Bilboko gaiteroekin alaituta.
18:00 Umeendako ipuin kontalaria eta magoa (Hiruki plazan).
22:00etatik aurrera Ensemble Anxamas folk-zelta musika.

Maiatzak 2, domeka

10:00 Etxafleroak esnatzeko
11:00/13:00 Haur parkea eta aurpegia margotzeko tailerrekin.
Arrostaitz dantza taldearen emanaldia.
12:00/13:30 San Andreseko AEDko emakume taldeak banatuko du salda bero-beroa eta goxoa.
Herri kirolak: Aizkolariak: Ugaitz Mugertza eta Manolo Kañamares. Harri-jasotzailea: Izeta.
Poteoa trikitilariekin eta talde abeslariekin.
12:30 Gure nagusien omenez meza santua.
13:30 Luntxa/bazkaria 80 urtetik gorakoentzat.
16:00 Gorriti eta bere animaliak (Córdoba y Oro plazan).
II. Texas Holden Txapelketa Urmai kafetegian.
Izen ematea: 35 euro izango dira eta 15:30ean bukatuko da.
18:00 Umeendako txokolatada Kurtze-Txiki plazan.
19:00 Jaiak bukatzeko etxafleruak.



ONDO PASAU JAIETAN!



IRIZTU TABERNA
EQUUS TABERNA
RAOS OINETAKOAK
TEKNOBERRI INFORMATIKA
URRETXU TABERNA
JAVIER GOZOKIDENDA
RITA URDAITEGI-FRUTATEGIA
TANTAKA TABERNA
AVENIDA TABERNA
TOKI EDER TABERNA
PIPPOL TABERNA
LENNON TABERNA
CENTRO EXTREMEÑO JATETXE-TABERNA
IZASKUN ARRAINDEGIA
BASTIDA AKADEMIA
GIZADI ETXEKO LAGUNTZA



AED > LEHIAKETA

Literatura oraindik gaztetxoak erakartzeko gai dela frogatu du parte-hartze handiak

Literatura lehiaketaren 23. edizioan gora egin du jasotako lanen kopuruak; antolatzaileak, pozik

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Play Stationen belaunaldia-ren ondoan badago literaturaz gozatzeko duen beste belaunaldi bat. Hau da, literatura maite duten gaztetxoak badaude Arrasaten. Izan ere, AEDk gaztetxoei begira antolatzen duen literatura lehiaketa arrakastatsua da oraindik. Joan den egubakoitzean egin zen sari banaketa ekitaldian, Kulturateko areto nagusia ez zen leporaino bete, baina eserleku gutxi geratu ziren hutsik.

23. edizio honetan iaz baino lan gehiago jaso dituzte. Ipuin eta poesiaz aparte, antolatzaileek

komikietan eta bertso paperetan izan den gorakada nabarmendu dute; azken horietan, adibidez, 95 lan jaso dira.

KULTURA DA SARIA

Bestalde, AEDk ikastetxeekin elkarlanean egindako lanak fruitu onak eman dituela jakinarazi du, eta datorren urtean ere deialdia batera egiteko asmoa erakutsi dute. Sarietara dagokienez, ondoko taulan agertzen diren gaztetxoek, dirua baino gehiago, kultura jasoko dute sari moduan; hau da, liburu edo disko bat erosteko dirua jasoko dute.

Saridunak, arloka eta mailaka

IPIUINA

DBH 1 eta DBH 2

- > 1. saria: Garazi Romero.
- > 2. saria: Irati Erostarbe.

DBH 3 eta DBH 4

- > 1. saria: Aitor Etxezarreta.
- > 2. saria: Ainhoa Urtzelai.

POESIA

LH 5 eta LH 6

- > 1. saria: Matilde Aizpurua.

DBH 1 eta DBH 2

- > 1. saria: Nerea Dorronsoro.
- > 2. saria: Garazi Romero.

DBH 3 eta DBH 4

- > 1. saria: Elena Gallastegi.
- > 2. saria: Ainhoa Zabaleta.

BERTSO PAPERAK

LH 5 eta LH 6

- > 1. saria: Eider Pozo.
- > 2. saria: Ana Caceres.

DBH 1 eta DBH 2

- > 1. saria: Arantzazu Letona.
- > 2. saria: Irene Dolara.

DBH 3 eta DBH 4

- > 1. saria: Nahia Zeziaga.
- > 2. saria: Elena Gallastegi.

17 URTEK GORAKOAK

- > 1. saria: Xabier Igoa.

KOMIKIA

LH 5 eta LH 6

- > 1. saria: Aitor Gonzalez.

- > 1. saria: Julen Arriola.

LH 5 eta LH 6

- > 1. saria: Celia Ruiz.
- > 1. saria: Iker Hervas.

> TXATXILIPURDI San Andresko jaiekin bat egingo du auzoko gazte txokoak

12 eta 17 urte arteko gazteen dako ekitaldi bereziak antolatatu ditu Txatxilipurdik San Andresko egoitzan, auzoko jaiek direla-eta. Besteak beste, jolasak eta dastatze tropikala egingo dituzte gaur; gazteek irabiatu eta zukuak egingo dituzte.

> URTEURRENA

Hamar urte beteko dituela-eta, jai berezia bihar lamai tabernan

Gaur, Cesar Bueno magoaren bigarren saioa izango da, 00:00etan. Hala ere, bihar izango da jai handia: DJ Makalaren bisita izango dugu; lehenengo aldiz izango da Arrasaten (23:00).



Auzoko La Madriguera taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 22:30ean. GOIENKARIA

JAIK > SAN ANDRES

Jaietako etorkizuna arriskuan, jendearen inplikazio faltagatik

J.B. > ARRASATE

Gaur hasi eta domekara arte jaiak izango dira San Andres auzoan. Eta Arrasateko hainbat auzotan gertatzen den moduan, jaietako etorkizuna kolokan dago, inplikazio faltagatik. Aitor Guridi auzo alkateak dioenez, ez dago inor jaiak antolatzeko: "Eskerrak emakume talde batek laguntzen digun programa osatu eta banatzeko", dio.

AVILATIK SAN ANDRESERA

Erretiratuei eskainitako ekitaldiak eta Avilako Ensemble Anxamas taldearen bisita nabarmendu ditu Guridik jaietako egitarautik. Ondoko taulako programaz gain, auzoko Emasan elkartearen eskulan eta margolanak erakusgai izango dira zapatu eta domekan, 11:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

Egitaraua

Apirilak 30, egubakoitza

19:30 Etxafuegoak, buruhandiak.
22:30 La Madriguera eta Matxinbrada taldeen kontzertua.

Maiatzak 1, zapatua

10:00 Diana Bilboko gaitariekin.
11:00-14:00 Haur parkea eta aurpegia margotzeko tailerra.
14:00 Herri bazkaria.
18:00 Umeendako ipuin kontalaria eta magoa.
22:00 Ensemble Anxamas taldearen folk-zelta kontzertua.

Maiatzak 2, domeka

10:00 Etxafuegoak, esnatzeko.
11:00-13:00 Haur parkea, aurpegia margotzeko tailerrekin.
11:00-13:00 Txikitxu dantza taldearen emanaldia.
12:00-13:30 Salda, AEDko emakume taldearen eskutik.
12:00-13:30 Ugaitz Mugertza eta Manolo Kañamarens auzokariak eta Izeta harri-jasotzailea.
12:30 Auzoko nagusien omenezko meza eta luntxa.
16:00 Gorriti eta haren animaliak, Cordoba y Oro plazan.
16:00 Texas Hold'em txapelketa, Urmai kafetegian. Izenematea: 35 euro. Izenematea, 15:30ak arte.
18:00 Umeendako txokolatjana Kurtze-Txiki plazan.
19:00 Jaietako amaiera emateko etxafuegoak.

URTEURRENA > GAZTETXEA

Azken aste bukaeran ere ez da aspertzeko astirik izango

Bideo emanaldia, musika, umeendako jolasak eta eskalada txapelketa geratzen dira oraindik

J.B. > ARRASATE

Orain arte gaztetxean egin den urteurren ospakizunetako egitarau borobil eta koloretsuena amaitzear dago. Izan ere, egitarauko azken aste bukaeran sartuko da Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua -AGAKO-. Hala, azken aste bukaeran ere gaztetxean ez da aspertzeko astirik izango.

ASEL LUZURRAGA BERBAGAI

Hasteko, Asel Luzurraga Bermeoko presoaren inguruko bideo emanaldia egingo dute gaur, 21:00etan. Bideo emanaldiaren ostean Luzurragaren gertukoak edozein zalantza argitzen saiatuko dira. Txileko Gobernuak 2009ko abenduaren 31n Justizia idazkaritzan lehegailu bat erabiltzen saiatzea leporatzen dio eta Luzurragak berak behin eta berriz ukatu du atentatu saia-

kera. Egun, Txileko bere etxean ari da atxiloaldia betetzen. Atxilotu zuten une beretik Bermeoko presoaren baldintza gabeko askatasuna eskatzeko hamaika ekitaldi egin dira Euskal Herriko hainbat txokotan.

Afalostean, berriz, musikaren txanda izango da: Bermeoko Okasientes eta Arrasateko Interprete Desconocido taldeak igoko dira agertokira; sarrerak, hiru eurotan. Kontzertuan batzen den dirua Luzurragaren abokatua ordaintzeko izango da.

Zapatuan, bestalde, umeendako jolasak eta eskalada txapelketa antolatuko dituzte. Eta urteurrenari amaiera emateko, Gazte Asanbladak jakinarazi duenez, "gau eroa" izango da gaztetxean. Ez dute ezer aurreratu gura izan; hori bai, sorpresak izango direla aurreratu dute.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ZALDIBAR

Lasagabaster eta Betrayer bihar kopako finalean

Kopako finalaz gain (18:00) asteburuan ez dute Zaldibarren beste partidurik jokatu

X.U. > ARRASATE

Kopa txapelketako finala jokatuko dute bihar, maiatzak 1, Betrayerrek eta Lasagabasterrek. Hasiera baten 17:00etan jokatu behar zuten norgehiagoka hori, baina 18:00etan izango da finala, ligan ere hurrengo faserako sailkatuta dauden bi taldeen artean.

Eta, hain zuzen, ligako sailkapenari begira biharko finalista ez dira indartsuen azaldu diren taldeak, baina kopak lege propioak ditu, hor dago grazia.

FASE BERRIKO MULTZOAK

Joan den asteko jardunaldi erabakigarrian McAwenDauen taldeak lortu zuen lehenengo zortzien artean sailkatzea, Fidel & Disc taldearen kontrako partidu estuan 7-6 irabazita. Hala, dagoeneko gertu daude fase erabakigarriko multzoak: Dublin, Abokajarro, At. Celaya eta Mc Awen Dauen A multzoan egongo dira; B multzoan, berriz, Dribling, Iriztu, Betrayer eta Lasagabaster taldeek jokatu dute.

> ATLETISMOA

Bidasoak kategoriaz igotzeko aukera du, Gijongo emaitzen ostean

Arrasateko atletak Gijonen izan ziren joan den astean, emakumezkoen lehen nazional mailako txapelketan esku hartzen. Lore Mar, Eukene Dorransoro, Malen Azua eta Oihane Urtzelai izan ziren Bidasoako taldean lehiatu ziren arrasatearrak, eta atletismoko modalitate askotan lortutako emaitzei esker lortu zuten bigarren sailkatzea. Hala, igoera faseko finala maiatzaren 16an izango dute, Madrilen.

> MENDIA

Besaidek ekainaren 5ean egingo du beteteranoen irteera

Beasaideko beteteranoek ekainaren 5ean egingo dute urteroko irteera, eta oraingoan, kostaldera joango dira, Deba eta Zumaia banatzen dituzten kilometroak egitera. Izena emateko epea maiatzaren hasieran irekiko da eta 28ra arte izango da zabalik. Izena emateko deitu 943 77 30 66 zenbakira edo joan egoitzara astelehen, martitzen edo eguaztenetan (19:30-20:30).



Jon de Andres arrasatearra Astigarragako Udalak emandako oroigarri txiki batekin, sagarrarekin.

XABIER URTZELAI

MUSIKA > JON DE ANDRES ABESLARIA

"Ez ginen favorito 'Oh Happy Day' irabazteko"

Arrasatekoak Astigarragako koruarekin irabazi zuen zapatuan ETB1 saioko bigarren edizioa

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jon de Andres arrasatearrak (17 urte) zapatuan irabazi zuen *Oh Happy Day* saioko bigarren edizioa: "Sorpresa izan zen guretako finala irabaztea, saioa hasi genuenean beste koruekin aldekatuz ezezagunak ginelako. Ikasteko asmoarekin aurkeztu ginen, ikasteko eta ondo pasatzeko, eta konturatu orduko finalean ginen. Hor bai, behin finalera iritsita irabazteko esperantza genuen.

ETB1eko *Oh Happy Day*-ren bigarren edizioa urtarrilean hasi

zuten, eta guztira bederatzi koruk hartu dute esku: Tolosako Hodeitruk, Orioko Salatxo, Irungo Kabigorri, Eibarko Gisaola, Donibane Loitzuneko Tximitzarra, Mallabiko Jasokunde, Durangoko Rock Izar, Donostiako Aita Sierra eta irabazleak, Astigarragako Ahots Gazteak.

ZER DELA-ETA ASTIGARRAGA?

Arrasatekoak Goikobalun abesten du -saioaren hurrengo ediziorako aurkeztu dira-, eta Astigarragako taldearekin zelan aurkeztu den ere azaldu du: "Saioan

parte hartu nahi genuen hama bi lagun elkartu ginen, eta bertako kideak herri askotakoak gara. Ze herri ordezkatu genuen pentsatzen ibili ginen, eta azkenean Astigarraga erabaki genuen".

Koruarekin batera, bakarlari lanak ere egin zituen Arrasatekoak: "Hasieran urduri ibili nintzen, koruarekin abestean kamera aurrean gutxiago ikusten zitzaigulako, baina bakarririk... Baina, zortea izan nuen, eta gustura geratu nintzen egindako lanarekin". Ahots Gazteak taldeak 10.000 euro irabazi ditu saioan: "Ea neure zatitxo gida baimena ateratzeko gordetzen dudana".

ANTZERKIA

'XL Town' antzezlan domekan Amaian

Erabiltzen dugun arroparen alde ezkutua erakutsiko dute antzezlanean

X.U. > ARRASATE

Egunero erabiltzen ditugun arropen ze alde ilun ezkutatu dute? Galdera horri erantzuten ahaleginduko dira domekan Amaia antzokian egingo duten *XL Town* antzezlanean (19:30).

Gobernu kanpoko erakunde Setem Hego Haizeak eta Arabako antzerki talde Pikorrek egindako lanak hausnarketara eramango du ikuslea, neurri barik erosteko sentitzen dugun behar ase ezinaren gainean, eta moda eta kirol etxe handiek produkzioaren izenean egiten dituzten barrabaskerien gainean egingo dute hausnarketa.

AURTENGO LANA

XL Town lana urtarrilean estreinatuta zuten, Gasteizen, eta orduetik hona Euskal Herrian barrena ibili da. Hala, taldeko arduradunen esanetan, euren asmoa da Hego Amerikara ere salto egitea.

Orokorrean esanda, *XL Town* antzezlanaren parodia bat da, gizakion kontsumo beharrraren eta multinazionalen etika faltaren gaineko parodia. Baina, antzerki panfletario izaeratik urrunduz, arduradunen esanetan antzerki moralista, mila bider entzun ditugun mezuak errepikatzen dituena, ez delako ino- rendako erakargarria.

XL TOWN

Arropa Garbia Kanpaina

Zatoz ikustera zer ezkutatu den moda industriaren atzean
Antzezlan dibertigarri eta esanguratsua!

DATA: maiatzak 2 (igandea)

ORDUA: 19:30

LEKUA: Amaia antzokia (Arrasate)

Sustatzaileak: Laguntzaileak:

HIRIGINTZA > SEMINARIOA-ARRIZURIAGA TRUKEA

Trukea irailaren aurretik egiteko eskatu dio Udalak Foru Aldundiari

Era berean, Gobernu taldeak, PSE-EEK eta EAK bat eginik, eta ehun bat herritarrek, "herriaren eta UNEDen interesen alde" egin dezatela eskatu diete Batzar Nagusiei

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udalak eskatu die Batzar Nagusiei Bergararen eta UNED zentroaren alde egin dezatela eta horretarako bi eskari egin diezaiotela Aldundiari: alde batetik, "Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko trukearen aldeko erabakia 2010eko iraila baino lehen" har dezala; bestetik, "data bera baino lehen bi eraikinen arteko trukearen ondorioz egin beharreko inbertsioen planifikazioa aurkez diezaiola UNED Patronatuari bere adostasunerako, betiere trukea lehenbailehen gauzatzeko".

Eskariok egin dituzte Aldundiak erabaki zuelako UNED Patronatuaren apirilaren 5eko batzarrean trukearen gaineko erabakia 2011ko irailera atzeratzea.

EAJk izan ezik, Udaleko gai-nontzeko alderdiek bat egin dute eskariok zehazteko orduan, hala nola Gobernu taldeak, EAK eta



Garai (PSE-EE), Etxaniz (Aralar), Barruso alkatea eta Askargorta (EA), ehun bat herritar atzean dituztela.

XABE PHOTO ESTUDIOA

PSE-EEK, eta halaxe adierazi zuten asteleheneko osoko bilkuraren ostean egindako prentsaurrekoan.

Hain justu ere, horixe izan zen Agurne Barruso alkateak azpimarratu zuen gauzetako bat: "Ideologia ezberdineko zinegotziak mahai berean batzea", azken baten, "Begararen eta UNEDen interesak defendatzeko". Eta gehi-

tu zuen trukea gauzatu arte lanean jarraituko dutela.

Aipatzekoa da, bestalde, ehun bat herritarrek ere parte hartu zutela prentsaurrekoan, Udalaren erabakiarekin bat egiten dutela adierazteko eta trukearen beharra azpimarratzeko.

Barruso alkateak prentsaurrekoan gehitu zuenez, Diputazioak trukea gutxienez urtebete atze-

ratzeak "beste urtebetez uzten du Bergara etorkizun ziuurrik barik. Ezinezkoa da Bergarako herriarentzat estrategikoki lantzea kultura ekipamenduen eta ondarea balio turistikoa jartzeko plana bi eraikinen arteko afera konpondu gabe", esan zuen Barrusok. Eta UNEDi dagokionez azaldu zuen: "UNEDek berak oraindik ez daki eta ez du jakingo zein izan-

go den behin betiko bere kokapena eta horrek etorkizunari begira har ditzakeen erabakiak baldintzatzen ditu".

OSOKO BILKURAN, MOZIOA

Prentsaurrekoa baino ordu erdi lehenago ohiko osoko bilkura egin zen eta hantxe eman zuten ontzat prentsaurrekora eramandako idatzia. Hain justu, Agurne Barruso alkateak gai zerrendatik kanpo aurkeztutako mozioa izan zen. Hori horrela, eta prozedurak zehazten duenez, gai-zerrendan sartu ala ez bozkatu zuten lehenengo eta baiezkoa atera zen Gobernu taldearen eta EAren aldeko 10 botoekin, EAJren ezeiko bost botoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin -bi zinegotziatik bakarria egon zen bilkuran.

German Muruamendiarazek EAJren izenean esan zuen gaia "hurrengo osoko bilkura baten" aztertu nahi zutela, "mozioa bilkura aurretik jaso eta irakurtzeko astirik ez" zutelako izan. Alkateak mozioa irakurtzeko etenaldia eskaini zien arren, EAJkoek ez zuten ontzat eman "seguruenik kontra-mozioa" aurkeztuko dutelako.

Horrekin guztiarekin ere, alkatearen mozioa gai-zerrendan sartu eta bozkatu ostean onartu egin zuten emaitza honekin: Gobernu taldearen, EAren eta PSE-EEren aldeko 11 botorekin eta EAJren kontrako bost botorekin.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BERGARAKO HAURRESKOLA (0-2 URTE)

Izena emateko epea zabalik!
Maiatzaren 3tik 14ra bitartean.



NOIZ HASTEKO: Irailean edo urrian.
NORENTZAT: 2009-2010 urteetan jaiotakoentzat.

NON: Bergarako Haurreskolan.
Boni Laskurain, 15. (Osasun zentroaren alboan).

Harremanetarako zenbakia: 943 76 25 96
Informazioa jasotzeko ordutegia: 13:15-15:15.

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

BERGARA

Margoak

Certificado ISO 9001 por



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxes: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

ONDAREA > BABESA

Errekalde jauregiko lorategia zaharberritu egin nahi dute

Lorategiaren ezaugarri garrantzitsuenak balioan jartzeko aurreproiektua esleitu dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udalak Errekalde jauregiko lorategiaren ordenaziorako aurreproiektua Citerea (Consulting Internacional Tecnico en Recuperacion Ambiental SL) enpresari 9.500 eurotan esleitzea onartu zuen asteleheneko osoko bilkuran, Gobernu taldearen, EAJren eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin.

Errekalde jauregiko lorategia XIX. mendekoa da. Ondare aldetik garrantzi handia du: batetik, garai hartako lorategien konzeptua oraindik bizirik mantentzen duelako; eta bestetik, herri-gunean dagoelako, eta, ondorioz, eremu estrategikoan.

LORATEGI HISTORIKOA

Udal Gobernuak lorategi historikotzat du Errekalde lorategia; izan ere, ondare arkitektoniko, paisajistiko eta naturala da. Arrazoi horiengatik monumentu jotzen dute eta babesteko eta aberasteko beharra ikusten dute. Lorategi horrek hainbat elementu ditu, garai hartako gizartea, kultura eta bizimodua erakusten dutenak: ura jasotzeko sistema bereziak, aska, iturriak, ureztatze sistemak... Berotegi zaharra, parterreak, terrazak, eskailerak, landare espezie bereziak, eta bertako basoa.

Udaleko Ingurumen teknikari Naiara Corcuera azaldu duenez,

"lorategi historikoen zaharberritze lanek ikerketa sakonez baliatu behar dute: dokumentazioa batu, memoria historikoa landu... Hori guztia, alderdi zientifikoa ondo bermatuta egon dadin". Eta gehitu du: "Hala, aurreproiektua esleitu egin da, ikusteko zeintzuk diren lorategiaren ezaugarririk garrantzitsuenak ondare eta natura aldetik eta horiek balioan jartzeko; eta baita ere herritarren erabileraekin bateragarriak egiteko".

Corcuera gehitu duenez, aurreproiektuak Europako Lorategi Historikoak gordetzeko liburu zuriko metodologia jarraituko du eta azpimarratu du aurreproiektua egingo duen enpresa aukeratzeko orduan beharrezkoa ikusi dela lorategi historikoa lehengoratzeko esperientzia eta sentsibilizazioa edukitzea.



Lorategiak inguratu egiten du jauregia.

M.B.

oharrak

KINTADA

> **1963an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 8an**

Etxagin egingo dute eta bazkari egunerako 13:00etarako egin dute hitzordua, Ariznoan. Interesa dutenek Ariznoa eta Dixula tabernetan eman dezakete izena, 10 euro aurreratuta, maiatzaren 2a baino lehen.

KINTADA

> **1970ean jaiotakoek kinto bazkaria maiatzaren 1ean**

Tartufon egingo dute. 12:30ean hasiko dute txikiteoa, Ariznoa tabernan, eta jatetxerako autobusa 14:30ean irtengo da, azokatik. Izenematea: Ariznoan 20 euro ordainduta edo kontu honetan sartuta: 3008 0169 53 2059080826.

KINTADA

> **1965ean jaiotakoek afaria egingo dute maiatzaren 1ean**

Tartufo jatetxean egingo dute, 22:00etan. 19:00etarako jarri dute txikiteorako ordua, Pol-Pol tabernan, eta 21:30ean abiatuko da urbanoa, Fraiskozuritik. Ize-

nematea: Ariznoa eta Pol-Pol tabernetan, ktxaniz@uskalnet.net helbidean edo 629 56 29 25 zenbakian.

KINTADA

> **1949an jaiotakoek urteko bazkaria maiatzaren 8an**

Tartufo jatetxean bazkalduko dute eta urbano zerbitzua egingo da. Izena emateko deitu 650 85 38 57 eta 666 49 04 62 zenbakietara.

> ERRETIRATUAK

Errenteriara irteera eta Gaztelara txangoa, San Joxeperekin

Mendi irteera antolatu dute Errenteriara maiatzaren 12rako. 07:00etan abiatuko dira autobus geltokitik. Ibilaldia egin eta gero Beti Bizkor jatetxean bazkalduko dute. Izenematea zabalik dago. Bestalde, *Gaztelako paisaiak* delako txangoa egingo dute irailaren 18tik 24ra. Horra izenematea ere zabalik dago.

> PREBENTZIOA


Azken eguna izena emateko Prebentzio Sailaren ikastaroan

Ostalariei eta Txosna batzordekoie zuzendutako ikastaroa antolatu du Udaleko Prebentzio Sailak. Gaueko jai-giroaren kalitatea hobetzeko jarraibideak eta drogen gaineko informazioa ematea da ikastaroaren helburua. Gaur da izena emateko azken eguna, 07:30-14:00 orduetean, 943 77 91 26 zenbakian.

> JAIK

Auzoko jaiak ospatuko dituzte bihar, zapatua, Labegaraietan

11:00etan, San Joxepeko abesbatzak abestutako meza nagusia egingo da, eta bukatu eta gero salda eta txorizoa emango dituzte. 14:00etan, herri txikiteoa egingo da eta 16:30ean, 48. Labegaraieta saria txirringuluri lasterketa. Jaiei amaiera emateko, 18:00etan, txokolate-jana egingo da kiroldegiko zelaietan.



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10



Etxera
eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Osintxu, Antzuola edo
Soraluzera + 2 €

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA

Muniategi: "Datozen bi lehiak, erabakigarriak"

Soraluce BKE taldeak Elgoibarren eta Egiaren bisita izango du jarraian; kategoriaz igotzeko lehia erabakigarriak izango dira horiek

XABIER URTZELAI > BERGARA

Euskadiko txapelketarako igoera fasea ez da datorren bi jardunaldietan amaituko, guztira hamar partidu jokatu dituztelako. Baina dagoeneko fase erabakigarriaren erdia jokatu dute, eta Josetxo Muniategiren mutiak bigarren daude sailkapenean, Egiaren atzetik.

Hala, bihar (zapatua, 12:30, Labegaraieta) eta datorren asteburuan etxean jokatu dituzten bi partiduak erabakigarriak izango dira Soraluce BKE igoera fasean zer egiteko gauza den ikusteko: "Bi partidu hauetan emaitza onak lortzeak bultzada handia emango liguke, bistan geratuko litzatekeelako zein



Trapagaran taldearen kontrako partiduko irudia, igoera fasean.

GOIENKARIA

geratuko den aurrean eta zein atzean", adierazi du mahoneroen entrenatzaileak.

ELGOIBARREN BISITA

Soraluce BKEk Alcorta Forging Group Elgoibar taldearen bisita izango du bihar: "Gure antza

duen taldea da, azkarrak dira eta defentsan nahiko txukun ibiltzen den taldea da", eta biharko partiduak duen zailtasunaren gainean datu argigarri bat ere eman du: "Ligan birritan jokatu dugu euren kontra, eta bietan irabazi digute".

> PILOTA

Ibai Bolinagak egindako zauriak baldintzatu zuen martitzeneko kanporaketetako bat

Bergara Hiria torneoko partiduan, martitzeneko lehenengo partiduan, Ibai Bolinagak belaunean egindako zauriak baldintzatu zuen partidua. Zabalera botatako pilota eramateko ahaleginean egin zuen Arrasatekoak zauria, eta, jokatzeko jarraitu ahal izan bazuen ere, ez zen partidu hasierakoa izan. Olaetxearekin batera 22-8 galdu zuen Mendinueta eta Iturriagaren kontra. Arrasatekoak pilotalekuek itzuli ahal izango da astebete barru.

Senior mailan, Yoldik eta Lintzoainek oso erraz hartu zituzten mendean Etxeberri eta Bengoetxea. Yoldik hamabi tanto egin zituen sakez, eta hor egon zen alde.

> PIRAGUISMOA

Espainiako Kopako hirugarren saioan Beti Busti elkarteko guztiak finalerdietarako sailkatu ziren

Beti Bustiok joan den asteburuan lehiatu ziren Orthezen (Frantzia). 224 piraguita izan ziren lehian, eta etxeko bost ordezkariak harro egoteko moduko lana egin zuten, denak sailkatu ziren eta finalerdietarako. Beteranotan, *Kuxi* hamargarrena izan zen; gaztetan, Josu Mentxakak brontzea irabazi zuen eta Iñaki Usabiaga zazpigarren izan zen; kadetetan, Patxi Ugalde ikusgarri egon zen, lehenengo sailkatuta, eta Beñat Lizarralde laugarren izan zen.

TXIRRINDULARITZA

Lokatzak lan ona egin zuen Elgoibarko lasterketan: Mikel Aristi podiumera igo zen

Bergaran egindako Espainiako Kopak utzitako biharamuna gainditu eta Lokatzako mutilek nagusitasuna erakutsi zuten errepidetan. Elgoibarren talde moduan lan ona egin zuten, eta aurrealdean ibili ziren mahoneroak. 92 kilometroko lasterketan Mikel Aristi hirugarren izan zen, eta seigarren izan zen Unai Retolatza.

Bestalde, Jon Rivero mendiko bizikletako selekzioarekin konzentratuta egon eta gero zortzigarren izan zen Beasainen.



IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatua

Paper pintatuak

Harea zorrotada

Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16

Faxa: 943 76 09 32

'PERFORMANCE' > EKAINAREN 25EAN

Ramon Arantzabalek performance-a egingo du ekainaren 25ean Munibe plazan

'Gau magikoak Munibeko plazan' delako ikuskizunean, musika, dantza, poesia eta pintura uztartuko ditu arrasateko margolariak



Arantzabal, Munibe plazan; aukera dago <http://gaumagikoak.wordpress.com> helbidean jarraitzeko proiektua.

A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Ekainaren 25ean Ramon Arantzabalek *performance* bat egingo du munibe plazan. *Gau magikoak Munibeko plazan* ikuskizun artistikoa izango da San Juan biharramunean, 22:30ean.

Arkitektura, musika, dantza, poesia, pintura... uztartuko ditu ikuskizunak. "Asmatu dugu istorio bat josiko dituen elementu guztiak eta zentzua emango diena *performance*-ari", azaldu du Arantzabalek.

AURORA BOREALA

Performance-ak bi zati izango ditu: lehenengoan -zortzi minu-

tu-, Munibeko gizona agertuko da plazan, eta *Finlandia* sinfoniaren laguntzarekin Osintxuko dantza taldeak dantza egingo du; bigarren zatian, *Bigarren sinfonia* entzungo da -20 minutu inguru-. Eta zati horretan ikusleek ikuskizunean parte hartu ahal-

ko dute. Agertokira sartu eta aurora boreala ikusteko aukera izango dute.

MARGOLANAK

Munibe eraikinean 12 margolan eskegiko dituzte; Moiu eta etxean bi margolan; Seminarioan 6x2ko

margolan bat; ikastola aurrean 8x2ko beste lan bat; eta lurtean bederatzi metro koadroko margolana egongo da.

Munibe plaza aukeratu du Arantzabalek egokiena delako, arkitekturak horretarako bidea ematen duelako.

> ANTZERKIA

Umorez betetako egoera harrigarriak Zabalotegin bihar

Bihar, zapatua, Kintinelas Teatro taldeak *Soy una sola* antzezlan eskainiko du. Emanaldia Zabalotegi aretoan izango da, 20:00etan. Sarre-rak leihatilan eros daitezke egunean bertan bost euroren truke.

Hiru neskak osatutako taldea da Kintinelas Teatro. Umorea ardatz hartuta, ezinezko egoerak eta egoera harrigarriak irudikatuko dituzte Zabalotegiko agertokian hiru emakumeek.

> UMEAK

'Baserriko saltsa' ikuskizuna eskainiko du La Baldufak

Domekan, etxeko gaztetxoek baserri giroa bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute. La Baldufa antzerki taldeak *Baserriko saltsa* ikuskizuna eskainiko du Zabalotegin, 17:00etan. Sarrera hiru euro kostako da.

La Baldufa taldeak aipamen berezia jaso zuen Lleida-ko txotxongilo azokan lan horrekin; eduki didaktikoak eta eszenografikoak dira aipagarriak.



Udaberria - uda

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Neurriak
38tik 60ra

ELKARTASUNA > EGITASMOA

Beste proiektu bat lagunduko du Misio Taldeak Bogotan

Ciudad Bolivar herriko Brisas auzoan erabilera askotariko hiru solairuko eraikina egingo dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Parrokiako Misio Taldeak proiektu berria du esku artean; hain zuzen ere, erabilera askotariko eraikina egingo dute Bogota hiri barrutiko Ciudad Bolivar-ko Brisas auzoan.

Hiru solairuko eraikina izango da, eta auzoko bizilagunei askotariko zerbitzuak emango dizkiete; besteak beste, osasun eta hezkuntza arloko ekintzak egiteko gunea; haurrei eta behartsuei jaten emateko gunea; eta, adinduei, alkoholikoei eta elbarriei laguntza emateko gunea. Eraikinaren kostua 40.000 euro inguru da. Hortaz, hurrengo bizpahiru urteetan diru kopuru hori batzen ahaleginduko dira Parrokiako Misio Taldekoak.

MISIOIARI OÑATIARRA

Bogotako proiektuaren berri Mari Karmen Markuleta mesedetako moja oñatiarraren bidez



Bogotako Brisas auzoan egingo dute erabilera askotariko eraikina.

AMAIA UGARTE

jaso zuten Misio Taldekoek. "Proiektua aukeratzeko orduan lehentasuna ematen diegu herriko misiolarien proiektuei. Izan ere, jarraipen zehatzagoa egiteko aukera eta bidaltzen dugun dirua benetan iristen dela eta

ondo erabiliko dutela bermatzen digute", esan digu Misio Taldeko Amaia Ugartek.

ETXE BAKOITZEAN BI FAMILIA

Brisas auzoak 7,35 hektarea ditu eta gutxi gorabehera 647 etxebi-

zitza daude. Horiek asfaltozko mantekin eta latekin eginda daude, eta bakoitzean bi familia bizi dira. Brisas auzoa orain dela 17 urte sortu zen, eta Kolonbiako nekazari herrietatik hirietara joandako pertsonak bizi dira.

Amaia Ugarte > Misio taldeko kidea

"Auzo behartsuenetako batendako eraikina izango da"

M.B. > OÑATI

Amaia Ugarte eta Parrokiako Misio Taldeko kideak buru-belarri dabilta Bogotako proiektu berriarekin. Oraingoan, datu gutxi dakizkitez, eta Mari Karmen Markuletak maiatzaren Oñatira egingo duen bisitaren zain daude.

Lanak hasi dituzte Bogotan?

Bai, baina guk oraindik ez dugu dirurik bidali. Eraikina auzo behartsuenetako batendako izango da.

Bogotako proiekturako nondik aterako duzue dirua?

Beti bezala, gure diru-iturri garrantzitsuenak erabiliko ditugu; besteak beste, elkartasun afariak,

txokolate-jan solidarioak eta Udalaren eta enpresa pribatuen dirulaguntzak.

Beningo proiektua nola geratu da?

Dagoeneko ikastetxeko eraikin nagusia eginda dago. Gu hori egiteaz arduratu gara. Gipuzkoako beste herri batzuetako misio taldeek beste zati batzuk egin dituzte.

Orain arte ze lan egin duzue Misio Taldean?

Misiolariekin harremanetan egoten ahalegintzen gara, eta herrira datozen euren esperientziak ezagutzen ditugu. Gainera, misiolariak jakinarazten diguten beharrei erantzuteko proiektuak garatzen eta dirua biltzen ahalegintzen gara.



M.B.

oharrak

DEIALDIA

> **Odol-ateratzea egingo dute maiatzaren 7an**

Oñatiko odol emaleen taldeak beste ateratze bat egingo du maiatzaren 7an, 18:30etik 20:30era. Oporren aurreko azken ateratzea ekainaren 11n egingo dute.

BIRZIKLAPENA

> **Etxeko olio batuko dute maiatzaren 8an**

Puntu Berde Mugikorra plazako aparkalekuan egongo da maiatzaren 8an, 09:00etatik 13:00etara.

Bestalde, etxeko traste zaharrak eguenetan biltzen dituzte. 943 71 19 38 telefonon abisua utzi behar da.

DEIALDIA

> **1961. eta 1962. urteetan jaio-takoan afaria**

Maiatzaren 8an bilduko dira Etxeberria jatetxean. Interesatuek 943 78 13 93 (Santi) edo 943 78 34 66 (Jesus) telefonotara dei dezakete.

ZELAI
OÑATI
www.zelaia.net

40
urte
elkarrekin

1970-2010



Euskadi etorbidea 3 - Oñati
943 71 89 49 - 943 78 36 99



Erreforma integralak

gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko



Berezaio auzoa - Oñati
943 78 20 08

KIROLA > SASKIBALOIA

Igoera eskuetan dute saskibaloit taldekoek

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Saskibaloiko senior mailako taldearendako aste bukaera erabakigarria izan daiteke: Aloñak domekan (Zubikoa, 12:00etan) Balmasedari irabazten badio eta zapatuan Santurtzik Lizuan menderatzen badu, oñatiarrek Lehenengo Mailan jokatu dute datoren denboraldian. Hori horrela, esperotako emaitzak egoten badira, domekan igoera ospatuko dute Zubikoa kiroldegian.

LEHEN TOKIAN BUKATU

Liga bukatzeko lau jardunaldi falta zaizkio Aloñari, eta, oraingoz,

sailkapeneko bigarren tokian dago Santurtzik dituen puntu berberekin (48 puntu). Lehia estua izango dute bi taldeek lehen postuarengatik.

Zaleek Aloñarekin ospatu gura dute igoera domekan, baina Xabi Igartua entrenatzaileak nahiago du Santurtzik partidua galtzea: "Gurekin lider dagoen taldeak galtzen badu eta guk irabazi, lehen tokian jarriko ginateke eta txapelketa irabazteko aukera asko izango genituzke. Igoera ia eskuetan dugu. Hortaz, gure helburua orain lehen tokian bukatzea da", esan digu.



Ander Mallabi jaurtiketa egiten Deusturen kontrako partiduan.

GOIENKARIA

beteranuak

EMAITZAK

LIGAKO A ETA B TALDEAK

Kalañatasaray-Zorrobero	0-4
Joxely-Gibel Boys	2-2
Dollygans-Txarrixak	0-2
Sasquatch-Nandrolona	2-0

PARTIDUAK

KOPAKO FINALERDIAK, BIHAR

12:30:

Txuskos-Indar 85/ Azpiazu

14:00:

Xaguxar-Gaur Bai/ Moli

LIGAKO FINALERDIAK, BIHAR

15:30:

Sasquatch-Joxely/ Mattin

17:00:

Zorrobero-Dollygans/ Arrilla

> Arduraduna kopan:

Nandrolona

> Arduraduna ligak:

Kalañatasaray

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1. Zorrobero	7	3
2. Joxely	5	3
3. Gibel Boys	4	3
4. Kalañatasaray	0	3

B TALDEA	P	J
1. Sasquatch	6	3
2. Dollygans	6	3
3. Txarrixak	6	3
4. Nandrolona	0	3

Finalerdiak

Herriko futbol txapelketak urteko lehiarik inportanteenak biziko ditu bihar; hain zuzen ere, ligako eta kopako finalerdiak jokatu dituzte. Talde onenak finalerako sailkatuko dira.

> DEIALDIA

Elkarretaratzea egingo dute, Aloñako igoerako antolatzaileek deituta

Aloñako igoerako antolatzaileek deituta azken egubakoitzeko elkarretaratzea egingo dute gaur plazan, 19:30ean. Euskal presoek elkartasuna adierazteko eta haien eskubide zibil eta politikoko errespetatzea eskatzeko bilduko dira.

> AISIALDIA

Gaur da azken eguna udalekuetarako izena emateko

Uztailaren 1etik 30era egingo dituzten udaleku irekietarako izenematea gaur bukatzen da umeendako. Interesatuak 65 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxan. Ume gazteenak 2006an jaiotakoak izango dira eta zaharrenak 10 urtekoak.

> KULTURA

Agustin Goenagaren erakusketa ikusteko azken egunak

Agustin Goenagaren erakusketa zabalik egongo da domekara arte, 18:30etik 20:30era. *Gabrielaren umeak*, *Mistralen Txileak* delako erakusketa Gabriela Mistral ezizena zuen Lucia Godoyren omeneko erretratu bilduma egin du argazkilaria oñatiarrak.

> KIROLA

Irellore golf txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Irellore golf eskolan udaberriko txapelketa egingo dute maiatzaren 9an. Dagoeneko izenemate epea zabalik dute eskolan bertan, maiatzaren 7ra arte. Maila askotariko txapelketak egingo dituzte, gizonezkoendako zein emakumezkoendako.

2 eta 3 logelako etxebizitzak eta garajeak

Oñatiko herrigunean, Eroski ondoan

Lehen mailako materialak
Prezio interesgarriak,
254.000 eurotik aurrera

Informazioa: 943 78 28 90



PROMOCIONES ARANZAZUBERRI S.L.

UDALA > KUDEATUZ EGITASMOA

Oso gustura bizi direla herrian jakinarazi dute inkestatuek

518 aretxabaletarri egin zizkieten inkestak herriaren gainean, iaz, eta gehienak pozik azaldu dira: notarik eskasena zirkulazioak jaso du (5,65)

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Martitzenean aurkeztu zituen Inaxio Garro alkateak 518 herriarri egindako inkesten emaitzak. Aldundiak bultzatutako Kudeatuz egitasmo barruan egin du inkesta Gizaker enpresak. Gipuzkoako beste bederatzita herriaren ere egin dituzte, tartean Irunen eta Elgoibarren, eta Aretxabalelako emaitzak batez bestekoren gainetik daude.

ANJEL BERGARETXE BALORATUENA

Herrian oso gustura bizi direla aretxabaletarrak jaso dute inkeste, eta 7,98ko nota jarri diote herriari -0 eta 10 artean-. Gainera, inkestatu gehienek uste dute herriak hobera egin duela (%78,4). Bestalde, Aretxabalelako arazorik handienak honakoak direla diote: aparkaleku falta, gazteendako jarduerarik eza, langabezia, garbitasun falta, zirkulazioa...

18 eta 29 urte arteko etxea herrian bertan erosiko luketen galdetu diete eta baietza eman dute gehienek (%78,5). Berdeguneei, lorategiei, edukiontziei, argiteriari eta garbitasunari, oster, 6,29 eta 6,81 arteko nota eman diete. Garbiketa, gainera, auzoz auzo baloratu dute eta erdigunea dela garbier egoten den gunea (7,25) uste dute; zikinena, oster, industrialdea (5,89). Bestalde, inkesta-



Autoak herriko kalean; zirkulazioa da arazo handienetakoa, inkestatuen ustez. M.A.

tuen gehiengoak (%82,4) uste du herri segurua dela gauez, baina aste bukaeretan ez dagoela nahiko zaintza (%56,2). Aisialdi zerbitzuek jasotako nota 6,76 izan da, eta jaiek, 6,62. Eta puntuaziorik okerrrenak zirkulazioak (5,65) eta

herrian lana topatzeko dauden aukerak (5,26) jaso dute.

Udal ordezkarien gainean ere galdetu diete herritarrei eta baloratuenak izan dira Anjel Bergaretxe (6,81), Inaxio Garro alkatea (6,58) eta Edorta Mendieta (6,42).

INGURUMENA

Airearen kutsaduraren emaitzak, eguaztenean

Iaz Markole auzo inguruan egindako azterketaren emaitzak aurkeztuko dituzte

M.A. > ARETXABALETAKO

Iaz udaberriaren Markole auzo inguruko airearen laginak hartu zituzten hainbat asteetan. Bizilagunek eurek eskatuta jarri zuten abian *Aretxabalelako atmosferan dauden elementu kutsatzaileen bigarren ikerketalana* izeneko azterketa, eta orduan jasotako emaitzak azalduko dituzte orain. Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanean egin dute azterketa hori eta bizilagunei eta interesa duten herritar guztiei azalduko dizkiete emaitzak eguaztenean, hilak 5, Arkupen (18:30). Donostiako Zientzia Kimikoen Fakultateko Lourdes Canton eta Miguel Angel Barrero doktoreek emango dute azterketaren berri eta jasotako emaitzen ondorioak azalduko dituzte. Bizilagunen kezka eta galderak erantzuteko gertu etorriko dira, gainera.

Markole auzoan egindako bigarren azterketa da, lehenengoan -2007an- "lagin gutxitxo" hartu zituztela esan zutelako adituek "ondorioak ateratzeko".

AISIALDIA > UDALEKUAK

Zabalik dago udaleku irekietan izena emateko epea maiatzaren 15a bitartean

M.A. > ARETXABALETAKO

Eguaztenean, hilak 28, zabaldu zuen Gazteria Zerbitzuak uztaileko udaleku irekietan izena emateko epea. 1998 eta 2006. urte bitartean jaiotako neska-mutikoek parte har dezakete aurtun eta interesatuek maiatzaren 15a bitartean eman behar dute izena Gazteria Zerbitzuan -astelehen eta eguaztenetan, 09:00-13:00 eta 15:00-17:00- edo kultura etxean -martitzen eta eguaztenetan, 09:00-13:00 eta 15:00-17:00-. Epea kanpoko izenematerik ez dutela onartuko jakinarazi dute antolatzaileek.

BEGIRALEEN CURRÍCULUMAK

Uztailaren 2tik 23ra bitartean egingo dituzte udalekuak eta 4 eta 12 urte arteko neska-mutikoak elkartuko dira hiru aste-



Neska-mutikoak jolasean begiraleekin iazko udalekuan. M.A.

tan (10:00-12:30 eta 15:00-17:00) jolastu, irteerak egin eta ondo pasatzeko asmoarekin.

Antolatzaileek gogorarazi dute udalekuetako ume horien


begirale izan gura duten gazteek maiatzaren 7a bitartean dutela epea curriculumak Gazteria Zerbitzura bideratzeko: gazteria@aretxabaleta.net.

> DEIA

Autobusa jarri dute Amurrio eta UDaren arteko partidurako

Amurriora joateko Aretxabalelako Kirol Elkarteak antolatutako autobuserako izenemate epea gaur eguerdian bukatuko da (15:00). Gurea tabernara jo behar dute interesatuek, eta 15 urtetik beharagoek nagusi batekin joan beharko dute.

Amurrioren aurka jokatuko du domekan hirugarren mailan dagoen Aretxabalelako futbol taldeak eta irabazi beharra dauka mailari eutsi gura badio. Hori horrela, autobusa jarri du zuzendaritza batzordeak, zaleen berotasuna jaso dezaten jokalariek. 16:15ean irtengo da autobusa Azbe lantegi pareko geltokitik eta 18:00etan da partidua Basarte futbol zelaian. Zuzendaritzako kideek ogitartekoak emango dizkiete autobusean doazen zaleei, guztia deialde.



DESKONTU BEREZIAK
AUTO, ETXEBIZITZA ETA BIZITZA
ASEGURUETAN

INFORMA ZAITEZ!

Errekabarren 3 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 11 76 / Faxe: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubj@euskalnet.net

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

EUSKARA > IBILBIDEAK

Herri inguruko lau ibilbideren gaineko fitxak egingo ditu Loramendi elkarteak

Lehenengo ibilbidea, herri barrukoa, maiatzaren 15eko Euskerien Egunean aurkeztuko dute

Herriko hainbat adituren laguntza dute, eta lan handia egiten dabilta historia kontuak jasotzen

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Loramendi elkarteak ibilbide berriari ekingo dio maiatzean. Datorren egubakoitzean, hilak 7, aurkeztuko dute irudi berriua, eta aurrera begira dituzten asmoen berri eman. Horien artean dago herriko ibilbideen proiektua.

ERRETIRATUEN LAGUNTZA

Iaz etorkizunaren gainean egin-dako hausnarketa mintegian erabaki zuten proiektu bitartez lan egitea eta proposatutako proiektu-

tuetako bat toponimia lantzea izan zen. Bertako leku izenak aztertzeko gogo horrek ibilbideak egitera eroan ditu Loramendiko kideak eta herriko hainbat aditu lagun hartuta –erretiratu berri direnak, gehienak– horretan dihardute. Bederatzi lagun dabilta lanean; horien artean daude mendian adituak, Aretxabaletako historian jantziak eta argazkigintza zaletasun dutenak.

LIBURUKETAN JASO

Lau ibilbide zehaztu dituzte eta irteera puntua beti Herriko Plaza azpian dagoen 82. kilometroa izango da. Hona ibilbideak: herri barrukoa; Izurieta-Galartza-Apotzaga-Etxebarri; Arkarazo-Arentza-Goroeta; eta Ojala Zelai-Aozaratza-Larrino-Bedoña-Oro.

Herri barrukoa dagoeneko gertu daukate. Hain zuzen, maiatzaren 15ean egingo duten Euskerien Egunean aurkeztuko dute bisita gidatua eginda. Hona ibilbidea: 82. km-parrokia-Kalebarren-Santutxo-Lausitta-Errekabarrena-Ibarra-Errotabarri-Loramendi-Kalegoixena-Erdiko kalea.

Ibilbide horiek fitxetan jasotzea da asmoa eta ondoren libu-



Plaza azpian dagoen 82 kilometroa, ibilbide guztien hasiera puntua.

M.A.

ruxka egin datu zehatzagoekin eta historia kontuak gehiago sakonduta. Lehen ibilbidearen liburuxka Euskerien Egunerako egongo da gertu eta bazkideei eta ibilbidea egitera doazenei

banatuko diete. Liburuxka horretan ibilbidearen gaineko zehatztasunez gain, lehen eta oraingo kontuak jasoko dituzte eta argazkiekin dokumentatu –batez ere argazki zaharrak.

> IKUSKIZUNA

'Harri irratixe' bakarrizketa gaur Goio Arrietarekin

Goio Arrieta aretxabaletartuta dagoen eskoriatzarrak *Harri irratixe* bakarrizketa eskainiko du gaur (22:00), Arkupen. Lehenengo aldiz egingo du halako ikuskizuna eta "musikaren gaineko gogoeta" egin duela aurreratu digu. Bakarrizketa hutsa ez da izango, ikus-entzunezkoak erabiliko ditu-eta girotzeko.

Ikusmin handia sortu duenez ikuskizunak, maiatzaren 7an beste saio bat eskainiko du.

> ERLIJOA

Bokazioen aldeko otoitzaldia egingo dute bihar komentuan

Debagoieneko artzapez-barrutiak deituta, bokazioen aldeko otoitzaldia egingo dute bihar, maiatzak 1, Agustindarren komentuan (20:30). *Testigantzak bokazioak sorrazten ditu* leloarekin egingo dute otoitza eta kristau elkar-teko kide guztiak gonbidatu dituzte.

Bestalde, maiatzaren 8an eta 9an jaunartzeak izango dira Aretxabaletako parro-kian.

argazki zaharra



70ean jaiotakoek 40 urteak ospatuko dituzte

1970ean jaiotako kintok maiatzaren 22an ospatuko dituzte 40 urteak: trikitilariekin txikiteoa (12:00); zuhaitz landaketa (13:00); eta bazkaria Taberna Berri jatetxean (14:30). Izena emateko Arlutz, Orly edo Zaraia tabernetara jo edo mezu bat idatzi: Kintadel70@gmail.com.

Argazkia: Kepa Mendieta.
Testua: GOIENKARIA.
Urtea: 1989.



Sella errekan piraguan ibilitako neska-mutiko taldea.

KURTZEBARRI ESKOLA

AISIALDIA > IRTEERA

Sella errekan piraguan eta zaldian ibili dira ikasleak

Ikasturte bukaerako jaia egingo dute Kurtzebarri institutuko kideek maiatzaren 8an guraso elkartearekin

M.A. > ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako Batera guraso elkarteak antolatuta, Asturiasko Cangas de Onis inguruan izan ziren DBHko ikasleak joan den aste bukaeran. 25 bat neska-mutiko joan ziren bost gurasoren laguntzarekin eta oso gustura itzuli ziren guztiak.

Urtero egiten dute irteera ikasturte bukaera aldera, baina eskiatzera joan izan dira beti. Aurten aldatzea erabaki eta piraguan ibiltzera joan dira Sella erreka ezagunean: "Oso esperientzia polita izan da eta neska-mutikoek oso ondo pasatu dute", dio guraso batek. Hurrengo egunean, ostera, zaldian ibili ziren eta irteerari bukaera polita eman.

JAIALDIA HERRIKO PLAZAN

Hurrengo zapatuan, maiatzak 8, ikasturte bukaerako jaia egingo du Batera elkarteak Herriko Plazan. Olinpiadak egingo dituzte eta tortilla lehiaketa ere bai.



Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
●
Obra bukaerako garbiketak
●
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
●
Kristalena garbiketak
●
Arropa garbiketak

EZBEHARRA > OSOKO BILKURA

Aranburuzabalako kaltetutako bizilagunak itzul daitezke etxera

Eguazten arratsaldean, magalean lanean diharduen enpresak alkateari jakinarazi zion dagoeneko ez dagoela arriskurik familia horien etxeetan


MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Urtarrilaren 31n Aranburuzabala kaleko 24 eta 30. zenbakien arteko etxebizitzaren atzealdeko mendi magalean gertatutako lur-jausiaren ondorioz, etxetik kanpo egon diren 8 familia etxera itzul daitezke. Horixe jakinarazi zien Pedro Lasagabaster alkateak gainerako

udal ordezkariari, eguazteneko osoko bilkuran. Dagoeneko hiru hilabete pasa dira familia horiek euren etxea korrika eta presaka utzi behar izan zutelara eta arriskua zela eta Udalak utzitako etxeetan ostantu hartuta egon direla.

Lan horien ardura duen Zut enpresako obra zuzendaritzak

eguztenean bidalitako mezu baten bidez, azaldu zuen obrak aurreratuta daudela eta hegala egonkortzeko horma egina eta sarea jarrita daudela. Arriskurik ez dagoela eta hortaz, etxera buelta daitezkeela esan zuen. Aipatu zuen maiatzaren 30erako obrak amaituta egotea espero duela.



Dagoeneko horma eta sarea jarri dituzte mendi magalean.

MIRIAN BITERI

IRTEERA > MENDIA

Atxorrotzeko eguna egingo dute etzi eskoriatzarrek, maiatzeko lehen domekan

M.B. > ESKORIATZA

Etzi, domeka, Atxorrotzera igoko dira osterara ere eskoriatzarrek. Azken urteotako ohiturei utsiz, Atxorrotzeko eguna herriko kaleetan hasiko da, 09:00etan, txistulariek egingo duten dianarekin. Ordu erdi geroago, mendira igotzen hasiko dira, eta ordubetik inguruko igoeraren ostean gailurrera iritsiko dira.

Fededunek meza izango dute hango baselizan, 11:00etan. Elizkizuna amaitzean, trikitilariak ingurunea alaituko dute, mendizaleek egun horretarako jarritako tabernan egarria eta gosea baretzen duten bitartean. Eguerdian, batzuek beheranzko bidea hartzen duten bitartean, beste batzuk Atxorrotzen bazkalatzen geratuko dira. Etxetik ezer igotzen ez dutenek jakin dezatela aurten ere ogitartekoak salduko direla tabernan.

Betiko moduan, arratsaldeko ekimenak Herriko Plazan egingo dituzte. 18:30ean, herri-



Joan den urtean ederto pasa zuten uimek asto batekin.

GOIENKARIA

tarrek egindako tortillak salduko dira han; bitartean, dantza egiteko aukera egongo da toki berean, herriko txistulariek eskainitako erromerian.

Atxorrotz egunean batzen den dirua Eskoriatzako Atzeratuena Taldera eta Atxorrotz GKEK dituen proiektuei laguntzeko bideratuko da aurten ere.

oharrak

AISIALDIA

> Jolas tradizionalen jaialdia

Kataia eten barik egitasmoren harira, gaur, jolas tradizionalen jaialdia dago Santa Mariñe plazan, 18:00etan. Bost zirkuitu egongo dira han.

GAZTEAK

> Bertso merienda gaztelekuan

Gaur arratsaldean bertso merienda egingo dute herriko gaztelekuan. Jokin Labaienek gidatuko du. 18:00etan hasiko da.

KIROLAK

> Asteburuko kirol hitzorduak

Bihar, zapatua, areto-futboleko partiduak daude kiroldegian. 11:00etan, gazte mailan, Eskoriatza eta Zarautz lehiatuko dira; 18:00etan, Euskal Ligako areto-futbola, Gasteizko Aurrera taldearen aurka.

IRAKURMENA

> Nagore Aranarendako, e-booka

Musika airean, e-booka politikoan lehiaketa irabazi du Nagore Aranak. Eskoriatzako Udalak antolatutako lehiaketa da hori, Karmele Jaio idazlearen *Musika airean* liburua oinarritzat hartuta.



LENIZ
ESKORIATZA



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

AZPIEGITURAK > ERREPIDEA

Sagastiko biribilguneko proiektua ikusgai dago

GI-632 eta Sagasti kalearen artean egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak biribilgunea; lan horiek egiteko 567.000 euro inbertituko ditu



Sagastiko biribilgunea nola geratu den.

GOIENKARIA

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Datorren astean jarriko dute ikusgai Sagastiko biribilguneko proiektua jendaurrean. Hain zuzen, maiatzaren 3an eta 4an udaletxeko osoko bilkuran egongo da ikusgai proiektua, bulego orduetan.

Hala, proiektua ikusi eta alegazioak jartzeko modua egongo da; alegazioak aurkezteko azken eguna maiatzaren 14a izango da. Udala arduratuko da alegazioak idazteaz.

SAGASTIKO BIDEGURUTZEAN

GI-632 errepidearen eta Sagasti kalearen bideturtean eraikiko dute biribilgunea. Gipuzko-

ako Foru Aldundiak 567.000 euro inbertituko ditu lan hori egiteko. Puntu hori GI-632 errepidearen 19,250 puntu kilometrikoa da; gainera, puntu hori baino 200 metro aurrerago dagoen Antiguako auzorantz doan bidea ere berrituko dute.

Biribilgunea berriak 21 metroko kanpoko erradioa izango du marra zuriraino; eta

barruko erradioa 15 metrokoa izango da. Bi aldeetan metro bete zabaleko bazterbidea egingo dute.

AUTOBIDEA: SEI ALEGAZIO

Beasain Durango autobideko Zumarraga-Bergara tartearen proiektuari sei alegazio jarri dizkiote herritarrek. Udalak ere jarri du alegazioa bere aldetik.

> JENDARTEA

Mairuaren Alardea antolatzeke bilera maiatzaren 12an

Maiatzaren 12an Mairuaren Alardea antolatzeke bilera egingo dute. Ateak zabalik daude nahi duten herritar guztiek parte hartzeko. Iaz alardeak aldaketak izan zituen; eta herritarrek gustura hartu zituzten aldaketok. Hori horrela, aurten haratago joan nahi dute Udaleku Kultura arduradunek. Alardea herritar-erago egiteko herritarren parte-hartzea handitu gura dute. Bileran izango da maiatzaren 12an, eguaztena, 18:30ean, udaletxeko beheko solairuan.

Bestalde, herriko jaiak antolatzen hasteko atzo egin zuen Jai batzordeak urteko lehenengo bilera.

> HEZKUNTZA

Astelehenean zabalduko du Haur Eskolak matrikulazio epea

Haur Eskolako matrikulazio epea maiatzaren 3an, astelehena, zabalduko dute eta hilaren 14a arte egongo da zabalik izena eman gura dutenentzako. Haur Eskolatik adierazi digute informazioa jaso gura duenak astelehenean egubakoitzera 13:15etik 15:00etara pasa ahalko duela Haur Eskolatik bertatik. Informazioa jasotzeaz gain, izena emateko aukera ere egongo da.

Antzuolako Haur Eskolak bi gela ditu: 0-1 urte bitarteko haurrendako bat eta 1-2 urte bitarteko haurrendako bestea. Orain matrikula egiten dutenak irailean hasiko dira eskolan. Bi geletan jarraituko dute irailean ere.

> TELEBISTA

Dagoeneko Antzuolan ere ikus daiteke GOITB seinale digitalen

Iritsi da Antzuolara ere Goiena Telebistaren seinale digitala. Azken egunotan jardun dute teknikariek horretarako beharrezkoak diren moldaketak egiten.

Lurreko Telebista Digitala ikusteko 52. kanalean aurkituko dute ikusleek Goiena Telebista. Sintonizazio probak egin eta aurkitzeko zailtasunak izanez gero, teknikari batekin jarri behar da harremanetan, antenan beharrezko egokitzapenak egin eta arazoa konpontzeko. Edozein zalantza argitzeko, gainera, *Goiena.net*-en horretarako bereziki prestatutako atal bat dago. Euskalteleko seinalea dutenek ez dute aldaketarik egin behar.

KIROLA > LIGA

Futbol taldeak domekan jokatuko du Estalan

Oriokoren aurkako neurketa 17:30ean izango da; irabaztea beharrezkoa dute antzuolarrek

A.E. > ANTZUOLA

Erregional preferente mailako futbol taldeak domekan jokatuko du Oriokoren aurka etxean. Partidua domekan izango da, 17:30ean. Sailkapenari begira jarrita, Orioko Antzuola baino hiru puntu aurrerago dago, puntu bat gehiagorekin. Hortaz, domekan irabazita antzuolarrek aurre hartuko liekete.

Orain dela bi aste, Antzuolako entrenatzaile Igor Larre-

ak eta Iban Unanuek esan zuten etxeko hiru partiduetatik bi irabaztea nahiko izango zela. Amaikak Baten aurka berdindu egin zuten, eta baita joan den astean Aretxabaletan ere.

AZKENA ETA LIDERRA

Domekan etxean jokatuko dute eta hurrengo partidua izango da sailkapeneko azkenaren aurka -Eibartarrak-; eta, azkena, etxean, liderraren aurka.

oharrak

LEHIAKETA

> Maiatzaren 12a da Kukumarro lehiaketan izena emateko azken eguna

Kukumarro lehiaketa-erakusketan parte hartu gura duenak maiatzaren 12a baino lehen eman beharko du izena udaletxean. Talde bakoitza, gehienez, lau lagunekoa izango da. Erakusketa-lehiaketa maiatzaren 15ean, San Isidro egunaren ospakizunean izango da, 11:00etatik aurrera botika inguruan.

LEHIAKETA

> Argazki lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna gaur da

Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira apirilaren 30a bai-

no lehen; eta lehiaketan parte hartu ahal du Antzuolan jaio edo bizi den edonork.

ORDUTEGIA

> KZgunean martitzenetan egongo da begiralea

Maiatzari dagokionez, KZgunean egongo da begiralea martitzenetan: maiatzaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, 16:00etatik 20:00etara.

UDALEKUAK

> Maiatzaren 7ra arte eman daiteke izena udalekuetan

5 urtetik 6. mailara arteko umeendako dira udalekuak. Udaletxean eman behar da izena, eta ordainketa agiria eroan behar da.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:

Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenean eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA



Apirilaren 17ko batzar nagusia; Topaguneak ongi-etorria egin zion Txirritolari.

TOPAGUNEA

EUSKARA > TXIRRITOLA

Txirritola elkarteak Topagunean sartu da

Euskara elkarten federazioan 95 elkarte daude gaur egun; Txirritolaren batzarra, maiatzaren 20an

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Txirritola elkarteak Topagunean, euskara elkarten federazioan sartu da. Joan den apirilaren 17an Iurretan egindako batzar nagusian, Topaguneak ongi-etorria egin zion Txirritolari. Aramaio euskara elkartearekin batera, Euskara Añanan Minganean (Añanako koadrila),

Goierriko Euskal Eskola (Lazkao) eta Gutxisolo (Trebiñu) dira Topaguneko kide berriak. Zarauzko Txaparro eta Oñatiko Laixan elkarten bajen ondorioz, guztira 95 elkarte osatzen dute Topagunea gaur egun.

Aramaio Txirritola euskara elkarteak 1998an sortu zuten. Xabier Herrarte da elkarteko pre-

sidentea egun. 100 bazkide inguru dira eta, besteak beste, Sagardo Eguna, Gabonetako menua, Txirritolinpiadak eta ipuin lehiaketa antolatzen dituzte urtean zehar. Hain zuzen, ipuin lehiaketako sari banaketa egin zuten aurreko egubakoitzean. Hiru aste barru, maiatzaren 20an, batzar orokorra egingo dute. Kultura etxean egin dute hitzordua egun horretarako, 18:30ean. Bazkide guztiei batzarrean parte hartzeko dei egin diete.



ALAIK

Galizian eta Portugalen izan dira erretiratuak

Aramaio 33 erretiratuak eta Antzuolako 12k bidaia egin dute Galiziar eta Portugalera. Zortzi eguneko alde batetik beste ibili dira eta hainbat toki bisitatzeko aukera izan dute: Santiago, Costa da Morte, Coruña, Oporto, Braga... Goiko argazkia Santiagoko plazan atera zuten, katedralaren aurrean. Domekan bertan iritsi ziren Aramaiora. Nekatuta etorri diren arren, Alaiak erretiratuen elkarteko lagunek primeran pasatu dutela esan digute.

GERTAERAK > SUTEA OLETA AUZOAN

Obena baserriko familia Otxandiora eraman dute

E.M. > ARAMAIO

Sute baten ondorioz zapatuan kiskalita gertatu zen Obena baserriko bizilagunak Otxandioko etxe baten kokatu dituzte. Aramaio eta Otxandioko udalak akordiora heldu dira familiako sei kideak etxe baten kokatzeko.

Jakingo duzue, ezbeharrak zapatu eguerdian gertatu zen. Sutea gertatu zenean 90 emakume bat zen Oleta auzoko Obena baserrian zegoen bakarra. Zorionez, onik atera ahal izan zuten bizilagunek.

Gasteizko suhiltzaileak etorri ziren sua amatatzera. Sutearen ondorioz, kalte materialak handiak izan ziren. Besteak beste, teilatu barik geratu zen baserria eta barruko egitura, egurrezkoa, erabat kiskalita.

LAGUNTZA LORTU NAHIAN

Auzotarrak hasi dira laguntza nola lortu aztertzen eta, besteak beste, kontu korronte bat zabalatzeko asmoa azaldu dute. Gauzak antolatu ahala horien berri emango dutela adierazi dute.



ITUR-ZURI

Itur-Zurikoak, Aian eta Zarautzen

Itur-Zuri emakume elkarteak irteera egin zuten zapatuan, Aiara eta Zarautzera. Eguraldi ederrak lagunduta, 24 emakume animatu ziren. Goizean zehar oso gauza politak ikusi zituzten Aiako lore azokan, eta baita hainbat erosketak ere. Zarautzen bazkaldu ondoren ordu pare bat izan zituzten Zarautzen ibiltzeko, eta gero etxera itzuli ziren.

> IRTEERA

Fauna autoktonoaren Korte Zubiko Basondo aterpetxea ikustera joateko irteera ekainaren 6an

Zuia Koadrilak antolatuta, bertako faunaren Basondoko aterpetxea ikustera joateko irteera izango da ekainaren 6an. Aramaio-tik irteera 09:30ean izango da eta itzulera 14:30 aldera. Plaza mugatuak dira eta izenematea maiatzaren 19ra arte dago zabalik. Prezioak: 7 edo 9 euro. Interesatuak udaletxera jo dezakete.

> BERTSOAK

Maiatzaren 8ko koadrila arteko bertso txapelketako finalerako sarrerak salgai daude

Aramaio eta Kakiturri-Eharik Arabako koadrila arteko bertso txapelketako finala jokatuko dute maiatzaren 8an, Gasteizen. Finalaren aurretik bertso poteoa eta bazkaria izango dira. Sarrerak eskuragarri daude www.bertsosarrerak.eu webgunean eta Gasteizko Amaia zentroan.

> ELKARTASUNA

Bigarren eskuko merkatua eta Nikaraguari buruzko hitzaldia gaur arratsaldean

Elkartasun egunak Aramaion egitarauaren barne, Iñaki Agiriak eta Inma Escribanok *Nikaragua, gure esperientzia* hitzaldia egingo dute gaur, egubakoitzean, kultura etxean, 19:00etan.

Era berean, bigarren eskuko merkatua eta trukea egingo da plazan, 17:00etan hasita.

ELGETA > IKASTAROAK

Nerabeei zuzendutako hitzaldia maiatzaren 7an

Adin horretan izaten diren aldaketak eta jarrera arriskuak aztertuko dituzte

L.Z. > ELGETA

Udaleko Ongizate Sailak antolatuta, 13-18 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako hitzaldia egingo dute hurrengo barikuan, maiatzak 7. Gazteekin urte asko lanean diharduen Arrats elkar-teko bi lagun etorriko dira Elgetara solasaldia egitera. Nerabe-zaroak dakartzan aldaketak, jarrera arriskuak eta adin txiki-koendako gaur egun indarrean dagoen legedia izango dituzte berbagai, besteak beste. Otsailean izan ziren Arrats elkartekoak Elgetan. Adin txi-

kiko umeak dituzten gurasoen-dako mahai ingurua egin zuten. Foro horretan interesgarritzat jo zen gazteek ere eduki horien berri izatea. Hala, Udalak bi adin tarte bereiztu ditu saio egokituak egiteko: Arrats elkar-tekoak 17:00etan elkartuko dira 13-15 urteko gazteekin eta 19:00etan, berriz, 16-18 urtekoekin. Bi saioak kultura etxean egingo dira.

LUDOTEKAN, AMAIERA FESTA

Gaur egingo dute Udal Ludotekako azken saioa. Mireia Berriozabal hezitzaileak moztu festa, merienda eta disko-festa antolatu ditu ludotekako gaztetxoendako. Iraila bukatu eman zioten hasiera zerbitzuari instalazio berrietan. Uztailean udaleku irekiek hartuko dute erreleboa.



Eskolako neska-mutikoak, eguaztenean, osoko bilkuren aretoan.

L.Z.

ELGETA > INGURUMENA

Energia kontsumoa txikitzekeo ideiak eta proposamenak

Eskolako umeek udal arduradunen aurrera eraman dituzte ikasturtean ateratako ondorioak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Eguaztenean udaletxeko areto nagusian izan ziren Herri Eskolako 60 bat neska-mutiko. Agenda 21 programaren barruan egingo azterketaren ondorioak aurkeztu zituzten Oxel Erostarbe alkatearen eta Rebeka Ubera eta Patxi Basauri zinegotzien aurrean. "Konturatu gara energia kontsumo handiak ditugula", esan zuten; "eta egoera hobetzeko konpromisoak hartzeko prest gaude". Berogailua, argia eta ordenagailua behar ez dituztenean itzali egingo dituztela adierazi dute. Gainera, konpromisoa hartu dute ahal den neurrian garraio publikoa, bizikletak edo patineteak erabiltzeko. Iturriak garbi edukitzeko ahalegina ere egingo dute la esan dute.

ESKAERAK UDALARI

"Udaletik neurri ezberdinak biderratu daitezkeela ikusi dugu", esan dute. Energia iturri berriztagarriak gehiago erabiltzeko ahalegina egiteko eskaria egin dute. Eskolako berogailuek errebisioa behar dutela esan dute. "Batzuk apurtuta dute itxeko botoia, eta termostatoa ipini daiteke energia aurrezteko". Eskolako txorrotetan, berriz, ura aurrezteko gailuak ipintzeko eskatu dute.

Herriko farolen egoera ere aztertu dute. Torrealdean gehiegi daudela ondorioztatu dute, plazan gutxi daudela uste dute, eta kantxan argia ipintzeko eskatu dute. Herriko iturrien egoera ere azterketa bat behar duela uste dute.

UDALAREN ERANTZUNA

Egindako lana eskertu eta jasotako proposamenak kontuan hartuko dituztela erantzun die neska-mutikoei Oxel Erostarbe alkateak. Arduraz jokatzeko eskaera ere egin die, ordea, "denon arduraren delako herriko farolak eta iturriak zaintzea".

bere ustez



Beatriz Zabalondo

'80 egunean' filma gozatuz

Duela egun batzuk estreinatu da *80 egunean* filma. Istorio hunkigarria izateaz gain, oso fin kontatua, eta dotore tratatua. Gogoangarria egin zait niri, zinez. Maria-sun Pagoaga arrasatearra da aktore nagusietako bat. Aitor dut: nik neuk ez nuen ezagutzen, eta nola gustatu zaidan! Itziar Aizpuru eta Jose Ramon Argoitia lankide izan ditut hainbat urtean, baina ustekabe ederra eman didate, eman didatenez. Zorion Egileorrek betetzen du laugarren protagonistaren rola.

"Horra istorio handi benetako bat etxeko atarian gertatu eta natural kontatutakoa"

Ezaugarri on asko azpimarratuko nituzke film hone-tatik. Hasteko, Garaño eta Goenaga zuzendarien lana: oso ondo definitu baituzte per-sonaiak, eta maisutasunez gidatu aktoreak, pertsonaien gorabeherak islatzeko. Estri-dentziarik gabe islatu ere, bere batean. Gidoiari dagokionez, biribila iruditu zait hitzen eta isiluneen arteko oreka. Bai zehatza! Hitzak bezain esan-nahi handikoak isiluneak. Eta hain osagarriak bi-biak! Aha-lerin handiaren fruitua da fil-mak sortu eta ekoiztea; zer esan-ik ez euskaraz. Horra istorio handi benetako bat etxeko ata-rian gertatu eta natural kon-tatutakoa. Alfonbra gorria zeuk jarriko diozu, ikusle!

> KIROLA

Frontenis txapelketako bi finalak zapatuan, maiatzak 1, jokatu dira Udal Pilotalekuan

18:00etan gizonetzkoen txapelketako 3. eta 4. postuak erabakiko dira. Ondoren, bi finalak etorriko dira. Lehenengo, emakumez-koena: Nagore Ojanguren-Leire Urgoitia/Nagore Morales-Beatriz Zabala; gizonetzkoetan, txapela janzteko finalistak Haritz Gallas-tegi-Eñaut Arantzeta eta Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga dira.

> OSASUNA

Amaia Garitanok Farmazialari Euskaldunen Elkartearen FEUSE saria jaso zuen domekan

3.000 euroko saria eta Farmazialari Euskaldunen Elkarteko kide-en errekonozimendua jaso zituen Elgetako botikan lanean dihar-duen farmazialari gazteak. *Atentzio defizita eta hiperaktibitatearen asaldura* izenburua duen lanarekin irabazi du saria.

> JENDARTEA

Irisgarritasun lanak direla-eta itxita egongo da Ozkarbi elkarte maiatzaren 5etik 21era

Komun berria eta bi malda egin behar dituzte Ozkarbi elkarte-an. Lanak maiatzaren 5ean hasiko dira eta amaitu bitartean elkar-tea itxita egongo dela jakinarazi du zuzendaritza batzordeak. Ozkar-bi eguneko bazkaria ere atzeratu egingo dute aurten. Bazkari egu-na obrak amaituta ikusteko aukera polita izango da.

LEINTZ GATZAGA > TXIRRINDULARITZA

Bi txirrindulari lasterketak egingo dituzte

Udala gertu Dorletako Ama batzordeari laguntzeko

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Dorletako Ama txirrindulari batzordea hasi da Gatzagan egin-go dituzten bi txirrindulari las-terketak antolatzen. Joan den astean egin zuten lehen batzarra kideek, eta, Udala laguntzeko gertu azaldu denez, bi lasterke-tekin aurrera egitea erabaki dute.

UDALAREN DIRULAGUNTZA

Ia 7.000 euroko aurrekontua du bi lasterketa antolatzeak, eta, krisi sasoi honetan dirutza hori lortzea zaila dela jakinik, baka-rra egitea aztertuko zuela iraga-rri zuen txirrindulari batzorde-ak iaz. Erabakirik hartu aurre-tik udal ordezkariekin egin dute

berba eta iazko dirulaguntzari eutsi egingo diotela esan diete: "Beharbada %10eko jaitsiera izango duela laguntzak esan digu-te, baina lasaitu ederra hartu dugu", diote batzordeko kideek.

Hori jakinik, bi lasterkete-kin aurrera egitea erabaki dute: "Lasterketa gutxi antolatzen dira gure ibarrean, eta ez antolatze-ak pena handia ematen zigun".

UZTAILAREN 4AN

Uztailaren 4an -Zurtitzako San Martin eguna- 32. Dorletako Ama txirrindulari lasterketa egingo dute 23 urtez azpiko eta elite mai-lako gazteek. Iaz, ia 100 txirrin-dulari etorri ziren eta aurten ere antzeko kopurua gurako lukete.

Irailaren 5ean, ostera -Andra-mari jaiak- mendi bizikleta ibi-laldia egingo dute.

> AISIALDIA

Artabillara gaua pasatzera joango dira Gureleko kideak

Gurel guraso elkar-teak aste bukaera pasa antolatu du. Pilo-taleku alboko horma margo-tuko date bihar goizean, eta gero elkarrekin bazkaldu. Arratsaldean Artabilla base-rri ingurura joango dira, oinez, bertan gaua pasatzeko asmo-arekin; eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan egingo dute lo. Domekan, ostera, Atxorro-tzera joatekotan daude.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Reala-Rayo Vallecano
Zapatua. 18:00. Anoeta.

Hirugarren maila
Amurrio-Aretxabaleta
Domeka. 18:00. Amurrio.

Gazteen Euskal liga
Bergara-Tolosa
Zapatua. 17:30. Agorrosin.
Aretxabaleta-Sestao River
Zapatua. 17:45. Ibarra.

Erregionalen ohorezko maila
Bergara-Hondarribia
Domeka. 17:30. Agorrosin.
Aloña Mendi-Pasajes
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Aurrera Ondarroa-Mondra
Zapatua. 16:30. Zaldupe.

Gazteen euskadiko federazio kopa
Bergara-Tolosa
Zapatua. 17:30. Agorrosin.
Aretxabaleta-Sestao River
Zapatua. 17:45. Ibarra.

Erregional ohorezko maila
Bergara-Hondarribia
Domeka. 17:30. Agorrosin.
Aloña Mendi-Pasajes
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Aurrera Ond.-Mondra
Zapatua. 16:00. Zaldupe.

Erregional preferentea
Ilintxa-Aretxabaleta
Domeka. 18:30. Bikuña.
Antzuola-Orioko
Domeka. 17:30. Estala.

Lehen erregionala, igoera fasea
Asoleus-Bergara B
Domeka. 12:00. Herrera.
Mondra B-Ordizia
Zapatua. 18:00. Mojategi.

Lehen erregionala, kopa
Texas Lasart.-UDA Arizmen.
Domeka. 12:45. Lasarte.

Ohorezko gazteak, kopa eta jaitsiera
Mondra-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Gazteak, igoera fasea
Aretx. Arizmendi-Real Union
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Gazteak, kopa
Urki-Arizmendi
Domeka. 17:15. Eibar.
Ikasberri-Bergara B
Zapatua. 18:00. Garmendip.

Ohorezko kadeteak, igoera fasea
Aretx. Arizmendi-Antiguoko
Domeka. 12:30. Ibarra.
Beasain-Bergara
Domeka. 11:30. Igartza.

Ohorezko kadet. Kopa
Aloña Mendi-Billabona
Domeka. 11:00. Azkoagain.

Kadeteak, igoera fasea
Trintxerpe-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Trintxerpe.
Ekintza-Arrasate
Domeka. 12:00. Berio.

Kadeteak, kopa
Arizmendi-Elgoibar
Zapatua. 11:00. Almen.
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Ipintza.

Ohorezko infantilak, txapeladunen fasea
Aretx. Arizmendi-Kostkas
Zapatua. 11:30. Ibarra.
Beasain-Arrasate
Zapatua. 12:00. Igartza.

Infant. Ohorezko kopa
Aloña Mendi-Amaiak Bat
Zapatua. 11:00. Azkoagain.
Bergara-Elgoibar
Domeka. 16:00. Ipintza.

Infantilak, parte-hartze kopa
LEK-Eibartarrak
Zapatua. 09:30. Eskoriatza.

Infantil txikien txapeladunen fasea
Reala-Arrasate
Zapatua. 12:30. Zubietza.

Infantil txikien kopa
Aretx. B Arizmendi-Hondar.
Domeka. 11:00. Ibarra.
Real Union-Bergara
Zapatua. 11:15. Irun.

Infantil txiki parte-hartze txapeladunen fasea
Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Asti txiki.

Alebin txapeladunen fasea
Arrasate-Ordizia
Domeka. 11:00. Mojategi.
Bergara-Elgoibar
Domeka. 11:45. Ipintza.

Alebinak, kopa
Aloña Mendi-Zumaikain
Domeka. 10:00. Azkoagain.

Emakumezkoen igoera fasea
Arizmendi-Mondra
Zapatua. 15:30. Almen.

Emakumezkoen kopa
Aloña Mendi-Eibar
Domeka. 13:30. Azkoagain.
Urola-Bergara
Domeka. 18:30. Argixao.

Emakumezkoen kadete F11, txapeladunen fasea
Tolosa-Arizmendi
Domeka. 11:30. Usabal.

Emakumezkoen kadete F11, kopa
Mondra-Luberri
Domeka. 17:30. Mojategi.

Emakumezkoen kadete F8, txapeladunen fasea
Tolosa-Bergara KF8
Domeka. 10:00. Usabal.

Emakumezkoen kadete F8, kopa
Aloña Mendi-Santo Tomas
Domeka. 10:00. Azkoagain.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Eskoriatza-Aurrera de Vitoria
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

Bigarren maila
Power Rangers-UDA Orly
Gaur. 20:45. OIartzun.

SASKIBALOA

Lehenengo maila, jaitsiera
Promociones Leg.-MU
Domeka. 18:00. Lizarra.

Maila autonomikoa
Aloña Mendi-Muebles Vizca.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Gipuzkoako seniorrak, giz. MU-Easo Zahar
Zapatua. 16:00. Musakola.
Aloña Mendi-Jalai Tab.
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gazteak, partaidetza
Soraluce BKE-OIartzun
Zapatua. 11:00. Mariaren I.

Infantil gizezkoak
Lezo-Leintz Eskola Kirola
Zapatua. 10:00. Donostia.

Infantil emakumezkoak
Antigua Lube.-LEK Arrasate
Zapatua. 09:00. Donostia..
Ama Guadal.-Soraluce BKE
Zapatua. 10:00. Hondarribia.

ESKUBALOA

Euskadiko Txap. Igoera
Soraluce BKE-Elgoibar
Zapatua. 12:30. Labegara.

Gip. Lurraldeko txapelketa
Arrasate-Amenabar
Domeka. 12:00. Iturripe.

Gazteak gizezko. Kopa
Arrate-Bergara Soraluce
Gaur. 20:00. Eibarr.
Urola-Aloña Mendi
Domeka. 11:15. Zumarraga.

Gazteak emakum. kopa
Verkol Aloña-Citroen Chap.
Domeka. 10:00. Zubikoa.

Kadete gizezkoak. kopa
Berezaio Aloña-Egia
Zapatua. 12:00. Zubikoa.
Bergara Soraluce-Arrasate
Zapatua. 10:45. Labegariet.

Kadete emakumez. kopa
Verkol Aloña-Usurbil
Gaur. 20:00. Zubikoa.
Lauko Elgoib.-Verkol Aloña A
Domeka. 10:30. Elgoibar.

ZIKLOTURISMOA

Bergarako 5+3 zikloturismo martxa
Domeka. 08:15. Bergara
(Agorrosin kiroldegia). 94 kilometroko ibilbidea, eta Elosuko igoera kronometratua izango da.

AUTO LASTERKETAK

Udanako IV. Igoera
Domekan. 14:00. Oñatin.
Antolatzaileek 13:00etan itxiko dute Udanako errepidea.



AUTO LASTERKETAK > UDANAKO IV. IGOERA

Udanako igoera domekan

DEBAGOIENEN HAMAIKA

Pilotuek Udanan hasiko dute denboraldia, eta ibarreko hamaika lagun izango dira lehian

AZKARRENAK

Iaz Euskadiko mendiko txapelketan sailkatutako lehenengo biak etxeokak dira, Zabaleta eta Nogueiras

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaletak gertutik jarraituko du Leioak eta Lagun Onak taldeek egingo dutena

Igor Gordobilen mutilek Amurrion jokatu dute domeka arratsaldean, baina besteen akatsen zain egon behar dute

X.U. > BERGARA

Hirugarren mailan liga amaitzeko bi partidu geratzen dira eta Aretxabaletak (39) ez du bere esku kategoriari eustea. Joan den astean etxean Portugaleteren

kontra batutako puntua ez da txarra, baina ez da Lagun Onak (39) aurreratzeko nahikoa izan, talde horrek aldeko duelako gol aldea. Hala, aretxabaletarrak garaipen bila joango dira domekan Amurrion (18:00), zarpigarraren postuan dagoen taldearen kontra jokatzera; baina hori baka-rrik ez, gertutik jarraituko dituztelako Agurainen Salvatierra (11) eta Lagun Onak taldeek jokatu-ko duten partidua, eta baita La Florida zelaian Portugaletek (66) eta Leioak (41) jokatu-ko dutena ere. Izan ere, Leioa bi puntura dago.

OHOREZKO ERREGIONALA

Ohorezko erregionalean bost jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, eta joan den astean ibarreko hiru ordezkariak kale egin zuten liga ahalik eta aurreren amaitzeko egin beharreko lanean. Bergarak eta Aloña Mendik etxean jokatu dute, biek domekan. Bergarak 13. dagoen Hondarribiaren bisita izango du, 17:30ean, eta Aloñak sailkapenean bigarren dagoen Pasajesen kontra jokatu du, 16:30ean.

Mondrak, berriz, zapatuan jokatu du Ondarroako Zaldupe futbol zelaian, 16:30ean.



Aloña Mendik eskura du kategoriaz igotzea

Liga amaitzeko hainbat jardunaldi geratzen badira ere, posible da Aloña Mendik domekan (12:00) lehen nazional mailara salto egitea.

XABIER URTZELAI > BERGARA

Iaz Euskadiko mendiko txapelketan protagonistak izan ziren bi pilotuak gertu daude domekan Udanan denboraldia hasteko. Bergaran egin dugu hitzordua eurekin, Aitor Zabaletak lan egiten duen tailerlean, eta Ruben Nogueiras bere taxia gidatzen iritsi da, Bilbora hiruzpalau buelta egin eta gero. Bolantea zaletasun, bolantea ogibide.

Eurekin berbetan gauden bitartean zain dago Lola BMW autoa, protagonismoa bereganatu eta erretratuak egiteko zain: "Ez da sasoirik onena auto hau lasterketetara eramaten ibiltzeko, oso garestia delako eta krisialdia ondo igartzeko delako [motora lehengo M3 autoek eramaten zutena da, eta 300 kilometro baino ez ditu egiten motor batekin]. Babesle berriak topatzea ia ezinezkoa da, eta pozik nago orain artekoek gurekin jarraitzen dutelako, ez da gutxi", adierazi digu aurtun lasterketetan 30 urte beteko dituen Zabaletak. "Orain dela 30 urte Herriko Plazan jolasten ibiltzen ginen gu, oraindik umeak ginen", dio Nogueirasek.

BI LAGUN

Auto lasterketetan ezaguna da pilotu askoren artean dagoen lehia. Orokorrean, lehia sana da, nahiz eta hor ere badauden ezin ikusiak. Ez da iaz mendiko txapelketan lehenengo eta bigarren sailkatu zirenen kasua; lasterketan kontrario, errepidetik kanpora lagun: "Oraindik gogoan dut Ruben ezagutu nuen eguna, autoa erosteko asmoa zuela kontatuz etorri zitzaidan. Halaxe hasi ginen, eta gaur arte. Hala, tarteke Zabaletak eskua sartzen dio Nogueirasen taxiari: "Ateratzen al dizu lehengo zarata hura?".

Nogueirasek eta Zabaletak lasterketetan bat egiten dutenean Oñatikoa ahalegintzen da Bergarako estutzen: "Baina ez dago ezer egiterik. Autoak erabat ezberdinak dira, baina horrekin batera Aitorrek oso ondo gidatzen du, eta ez hori bakarrik, lasterketa guztietako tramuak bikain ezagutzen ditu; abantaila handia da hori".

Hain zuzen, joan den asteburuan Nogueiras Ponferradan izan zen Speed Car gorriarekin lehian, eta Zabaletak aurretik esan zion hara ez joateko: "Errepidea negargarri dagoelako, eta autoaren behealde bertan utzi behar zuelako". Esan eta bete, Nogueirasen autoa tailerlean izan delako aste barruan, apurtutako fibrak konpontzen. Baina, Oñatikoa ez da hara joan izanagatik damutu -bigarren egin zuen.

MOTORRAK BEROTZEN

Oñatikoak eta Bergarakoak ez dute asko behar elkarri adarra jotzen ibiltzeko: "Auto zahar hori saldu egin beharko luke Aitorrek, eta gure kategoriako auto bat erosi, gurekin lehian ibiltzeko". Eta Aitorrek ezetz: "Zertarako, diru gehiago gastatzeko?", dio barrez: "Horrelako auto batek

orain 40.000 euro inguru balioko ditu, baina kategoria horretan dauden pilotuen artean sekulako pikea dute, eta hor ibiltzen dira uneoro autoari moldaketak egin eta hamarren batzuk hobetzeko diru mordo gastatzen. Azkenean, nire autoak dituen gastuen ia parera iristeko; horretarako, nahiago dut daukadanarekin jarraitu. Hori bai, norbait hamabost milioirekin etortzen bada, eraman dezala", dio Zabaletak, baina berak ere ez du sinisten hori. Oñatikoak, berriz, zozketa bat antolatu du gastuei aurre egiteko: "Lasterketetan jarriko ditugu txartelak salgai, eta zortea daukanak Silver Car bat eramango du etxera, edo 15.000 euro bestela".

URTEA HASTEKO GERTU

Domekan (14:00) egingo duten Udako igoeraren gainean galdetu diegu bi protagonistei: "Urteko lehenengo lasterketa beti da berezia, kilikak izaten ditut tripan baina 30 urte lasterketetan ibili eta gero gauzak patxada handiagoz hartzen ditut", dio Aitorrek. Nogueirasek etxean korrituko du: "Berezia da, Udana bikain ezagutzen dudalako eta etxekoan aurrean gauzak ondo egin nahi izaten ditugulako. Baina, euria iragarri dute, eta izan dudun zartako bakarra euria zela hartu nuen; horrek errespetua ematen du". Pilotu bi, lagun bi, epaileak lasterketako txanda hasteko atzera kontaktatu hasten duen arte. Hiru, bi, bat...

Ibarreko pilotuak

OÑATI

- > Ruben Nogueiras (Silver Car S2)
- > Juan Zelaia (Silver Car)
- > Aitor Ramirez (BMW 320 ST)
- > David Ardions (Clio Sport)
- > Asier Mugarza (Clio Sport)
- > Urtzi Samaniego (Audi S3)
- > Sergio Porcel (Xsara VTS)
- > Aitor Arnaiz (R5 Turbo)

BERGARA

- > Aitor Zabaleta (Lola BMW)
- > Roberto Gomez (BMW 325)
- > Igor Calleja (BMW 325 IX)



Nogueiras eta Zabaleta gertu domekan denboraldia hasteko. X.U.

ZIKLOTURISMOA > BERGARAKO 5+3 TXIRRINDULARI MARTXA

Gipuzkoako Challenge barruan, domekan zikloturista mordo batuko dira Bergaran

X.U. > BERGARA

Domekan egingo dute, Lokatzak eta Bergarako Txirrindulari Taldeak antolatuta, Bergarako 5+3 zikloturista martxa (Agorrosin kiroldedia, 08:15).

Irteera puntuan egongo da izena emateko aukera -federatuek 23 euro, ez federatuek 32-, baina badago aurrez izena ematea ere, *biciprecision.com* webgunearen bitartez -federatuek 18 euro, ez federatuek 27 euro-. Antolatzaileek 94 kilometroko ibilbidea prestatu dute domekarako, eta azken mendatea, Elosu, kronometraturaz izango da.



Hilaren 18an Deban egin zuten Gipuzkoako Challengeko irteera. AMAIKAK BAT

Abantailaz
betetako kluba!



**APIRILEKO
ZOKETA**

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



**SASKIBALOIRAKO
SARRERAK**

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**ESAIT-EKO TERMIKO
BERDEA ETA BISERA**

Bidali KLUBA ESAIT
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**UMEENTZAKO
PUZZLEAK**

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**EUSKAL
SELEKZIOKO ZIRA**

Bidali KLUBA ZIRA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA**

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

**GAU BAT
TXOPEBENTA LANDETXEAN**



- Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
- Basetxeta Auzoa.
- Gautegez-Arteaga (Bizkaia)
- www.nekatur.net/txohebenta
- www.toprural.com

Maiatzean 20 urte beteko ditugu;
Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13

Eskaintza www.hotelsantuariodearantzazu.com

- 46 logela
- 200 pertsonentzako jangela
- Eguneko menua eta karta
- Familientzako menuak asteburuetan
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak

Egunero zabalik



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza

www.errekajatetxea.eu

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Etxe-Aundi


Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 www.etxeaundi.com

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik

Jatetxe
Gida



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55

Eskaintza www.restaurantelasa.com

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak astartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.



Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokiak
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



Kalitate turistikoa

Zumelaga jatetxea

San Antonio 3 / BERGARA
Tel.: 943 76 20 21
www.zumelaga.com


Eskaintza

- Enpresako bazkari eta afariak
- Despedidak, ezkontza eta bataioak
- Karta eta menu bereziak

Igande eguerdietan zabalik eta astelehenetan itxita

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **ZUMETA**
'Globo rojo'-n
inspiratutako
erakusketa dakar
Arrasatera > 33



> **DANTZARI
EGUNA**
Soraluzeko eta
ibarreko taldeak,
Oñatin > 33

> **AINHOA
VITORIA**
Goizeko
bostetan
jaikitzen da
Ainhoa
Vitoria
arrasatearra;
goizez esatari
da Gaztea
irratian, eta
arratsaldez,
ikasle > 34



'Bizitzako kopa'-ri, Huhezinemako Goiena saria

SARIDUNAK

'Ahate pasa', 'Beasain-Lazkao' eta '5 recuerdos' ere saritu ditu epaimahaiak

66 FILM LABUR

Inoiz baino lan gehiago aurkeztu dira, gehienak fikziozkoak

IKUSLE ASKO

Huhezinemako emanaldietan aretoa beteta egon da

NEREA MENOR > ESKORIATZA

Hirugarren urtez, Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI Fakultateak Euskal Herri osorako Huhezinema film laburren lehia-keta abiarazi zuen eta atzo egin zen sari banaketa ekitaldia. Enara Goikoetxearen *Bizitzako kopa*

film laburrak irabazi du Goiena saria euskarazko lan onenari. Istorio berezia kontatzen digu zuzendariak: alargun baten bizitza monotonoan gertatzen den ezusteko batek familia osoa batu du eta monotoniatik atera du emakumea. Finalista izateagatik irabazitako 400 euroez gain, beste 400 irabazi du Goikoetxeak sari horri esker. Jaialdia egiten hasi zenetik, urtero eman du sari hori Goienak.

Horrez gain, epaimahai ofizialak bi aipamen berezi egin zituen: dokumental onena Koldo Almandozen *Ahate pasa* lana izan zen; eta fikziozkoen saillean *5 recuerdos* (Oriana Alcaine eta Alejandra Marquez). Huhezinemako antolakuntzan ibilitako 12 ikasleek film labur onenari emandako saria ere banatu zen: *Beasain-Lazkao*-k jaso zuen, Jon Artola zuzendariarena.

Ikasleen lanei dagokienez, ikusleek SMS bitartez erabaki zuten *Hutsik* eta *H Positibo* izango zirela aurtengo azkeneko saridunak, fikziozko sailean eta dokumental sailean, hurrenez hurren.

Horiez gain, beste sei lan heldu dira finalista izatera eta 400

euroko saria jaso dute: *2 euros y 35 céntimos* (Jon Iraizoz), *Etxeko bandan* (Juan Bidegain), *Tosferina* (Alvaro Alonso), *En tierra peligrosa 3* (Pendejo eta Gorrotxatepek), *Historia N° 52785-614-18* (Javier Garmar eta Gonzalo de Pedro), eta *Esta mañana* (William Welsh).

Inoiz baino film labur gehiago aurkeztu dira oraingoan lehia-ketara, 66 guztira; horietatik 49 fikziozkoak, 12 dokumental eta 5 animaziozkoak.

EPAIMAHAI PROFESIONALA

Aurtengo epaimahaia Ane Muñoz, Itziar Ituño eta Alberto J. Gorritibereak osatu dute, euskal zinemagintzan eskarmentu handiko profesionalak. Itziar Ituñorekin egin dugu berba eta irabazleak hautatzea oso lan zaila izan dela adierazi digu: "Askotariko materialak aurkeztu dira, proposamen oso ezberdinak". Film laburrak baloratzeko orduan bi gauza izan dituzte kontuan: "Teknikaren kalitatea eta kontatzen den istorioa. Epaimahaiko batzuek bati eman diote garrantzia, besteek besteari, baina, azkenean, erabaki guztiak adostuak izan dira".



> **'BIZITZAKO KOPA'**. Zuzendaria: Enara Goikoetxea. Goiena saria, euskarazko lan onena.



> **'5 RECUERDOS'**. Zuzendariak: Oriana Alcaine eta Alejandra Marquez. Fikzio onena, epaimahai ofizialaren saria.



> **'BEASAIN-LAZKAO'**. Zuzendaria: Jon Artola. Film labur onena, antolakuntzako ikasleek emandako saria.



> **'AHATE PASA'**. Zuzendaria: Koldo Almandoz. Dokumental onena, epaimahai ofizialaren saria.

FILM LABURREN EMANALDIK

Aretoa beteta eta txalo zaparradak partaide eta irabazleentzat

Martitzenetik atzo arte jaialdian murgildu ziren Komunikazioko ikasleak. Giro ezin hobea egon da fakultatean, eta ikasleek egindako filmen emanaldietan ikusle asko. "Txalo zaparrada ederrak jaso dituzte ikasleek", esan digute arduradunek.

Lehenengo egunean 3. mailakoen dokumentalen txanda izan zen eta bigarrean 4. mailako fikziozko lanak ikusi zituzten. Etxetik ikusteko aukera ere egon da, filmak asteen GOITBn eman dira-eta.

IKUSI ETA IKASI

Emanaldietan bidali ziren SMS mezuen bitartez publikoak erabaki zuten ikasleen saria. *H Positibo*



Emanaldia kaperan.

HUHEZI

dokumentala eta *Hutsik* fikziozko lana izan ziren atzoko irabazleak. SMS asko bidali ziren: "90, hain zuzen ere", adierazi digute eskolan. Dokumentalak hauetako 44 eskuratu zituen eta fikziozkoak 40.

Film laburrak ikusteaz gain, bi mintegi ere antolatu dira jaialdia osatzeko. Lehenengoa Kote Camacho zuzendari eta komikilaria eman zuen. Storyboardak ikusteko aukera izan zuten Camachoren ibilbidea ezagutzuz. Pendejo eta Gorrotxatepekek eman zuten bigarren mintegia. Haiekin, film laburrak hiru euroekin egin daitezkeela ikusi zuten gazteek. Hizlarien ikuspuntuaren eta esperientzien gainean aritu ziren.



Arritxu Barruso, Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisalto egin ondoren.

Egin dugu salto

Orain digitalera salto egin dugu:

> **ANTZUOLAN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ANTZUOLAN, ELGETAN, OÑATIN, BERGARAN,
ARETXABALETAN, ESKORIATZAN, ARRASATEN
ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
ARAMAION.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

ERAKUSKETA > JOSE LUIS ZUMETA

'Koloreen magoa' dator Arrasatera, 'Oi! Bihotz!' erakusketa zabaltzeko

Zumetak gaur zabalduko du serigrafien erakusketa, Kulturaten; aurkezpen ekitaldian egongo da

San Juan de Dios ospitaleko gaixoen idatziak izan ziren margolari famatuaren inspirazio iturria

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Arrasaten 1980ko hamarkadan ezagun egin zen *Globo rojo* aldizkariako testuetatik abiatutako artelanak ikusi ahalko dira gaur hasi eta maiatzaren 30era arte, Kulturateko klaustroan. Izan ere, Jose Luis Zumeta artista usurbildarraren azken erakusketak, *Oi! Bihotz!*-ek, Arrasaten egingo du geldialdia.

Iaz estreinatu zen erakusketa eta ordutik hona hamaika geltoki izan ditu *koloreen magoa*-ren azken proiektuak. Erakusketa-aren aurkezpen ekitaldian Zumeta bera eta haren alaba egongo dira, Kulturaten, 12:00etan. Arrasateko alkate Ino Galparsorok ere hartuko du parte ekitaldian.

Aitaren eta alabaren artean sortu dituzte erakusketako lanak. Lan bikoitza egin dute: hau da, Zumetaren artelanen serigrafiak liburu baten bildu dituzte, bate-tik. Argitalpen mugatua duen

DATUA

38

ARTELAN IKUSGAI

Artelanak aurkezteko erabili den teknika serigrafia da. 38 artelan ikusi ahalko dira, eta lanen ondoan *Globo rojo* aldizkariako poemak ipiniko dituzte.

liburua da: 150 ale zenbatuta eta sinatuta. Liburuan ikus daitezkeen estanpekin osatu dute erakusketa. Eta bestetik, aitaren inspirazio iturri izan diren San Juan de Dios ospitaleko gaixoen testuak jarriko dituzte erakusketa-ko artelanak osatzeko asmoz. Gainera, testuok liburu baten ere jaso dituzte eta Kulturaten irakurri ahalko dira.

BAZERTUEN SORMENA, ITURRI

Ezberdinak eta bazertuak diren pertsonen sormenak bereziki hunkitu izan du Zumeta. Adierazi izan duenez, besteak beste, haurren lanek, kaleko grafitiek eta ikuspegi akademikorik ez duen jendearen obrek piztu izan diote artea egiteko gogoia.

1980ko hamarkadaren erdialdean izan zuen Zumetak Arrasateko San Juan de Dios erietxe psikiatrikoko gaixoen testuen berri, *Globo rojo* aldizkariaren eskutik. Arrasaten nahiko ezagun egin zen aldizkaria; alde zaharreko taberna batzuetan asko irakur-



Jose Luis Zumetak (Usurbil, 1939) berak aurkeztuko du gaur erakusketa. ARGAZKI PRESS

tzen zen. Hala, testuok barruraino heldu zitzaizkion artistari, eta, eragindako gozamenaren eskertu guran, artelan bat bidali zien aldizkariaren arduradunei. Gero, Zumetak berak jaso zuen oparia: *Globo rojo*-ren zenbaki guztiak txukun-txukun bilduta. Bada,

aldizkari bereziaren aleak eskuan eta alabaren bultzadarekin, proiektu berri bati ekin zion artista usurbildarrak. Emaitza, esandako moduan, maiatzaren 30era arte ezagutu ahalko da Kulturateko klaustroan, martitzenetik domekara bitartean (17:30-20:30).

DANTZA > DEBAGOIENENKO DANTZARI EGUNA

Ibarreko 160 bat dantzarik dantzan jarriko dituzte Oñatiko kaleak bihar

Herriko Oñatz taldeak antolatu du aurten; jardunean dauden talde guztiek hartuko dute parte jaialdian

J.B. > OÑATI

Debagoieneko Dantzari Eguna izango da bihar Oñatin. Oñatz dantza taldeak antolatuta eta Oñatiko Udalaren laguntzaz, gaur egun jardunean diharduten bailarako eta Soraluzekeko talde guztiek dantzan jarriko dituzte Oñatiko kaleak. Hau da, Soraluzekeko Urrats, Antzuolako Oinarin, Arrasateko Arrostitz eta Lore Gazteak eta Oñatiko Oñatz dantza taldeek hartuko dute parte. Egun osoko egitaraua prestatu dute; beraz, euskal dantzez gozatu gura duenak goiz eta arratsaldean izango du horretarako aukera.

Eguraldiak laguntzen badu, herriko kaleetan zehar kalejira egin ostean Herriko Plazan izango dira dantza emanaldiak. Hala ere, Jesus Irizar *Txutxin* Oñatz taldeko arduradunak jakinarazi du eguraldi txarra bada, emanal-



Denetarik dantzak ikusi ahalko dira bihar Oñatin.

GOIENKARIA

diak Zubikoa kiroldegian egingo dituztela. Hala ere, espero dute eguraldiak ondo erantzutea.

OÑATZ, UZTAILEAN SUITZARA

Bestalde, *Txutxin*-ek aurreratu du Oñatz dantza taldeak uztailean Suitzara irteera egingo duela. Uztaileko lehen aste bukaeran –hilaren 2tik 4ra– Zurichera joan-

go dira dantzari oñatiarrak, han egingo den mundu osoko dantzen jaialdi baten parte hartzeko. Zuricheko euskal etxeak gonbidatu ditu –bertako arduradunetako bat oñatiarra da– eta hiru egunean sei saio egingo dituzte.

Jaialdian parte hartzeaz gain, beste saio batzuk emateko asmoa ere badute.

Dantzari Eguna Oñatin, bihar

10:30 Bailarako dantza taldeei harrera.

12:00 Dantza taldeen kalejira herriko kaleetan zehar.

12:30 Alardea Herriko plazan. Goizeko dantzen programa:

- > Agurra
- > Bizkaiko dantzak (mutilak): Ikurrin dantza, Banako, Makil dantza eta Txankarranko.
- > Arrostitz: Desmayo.
- > Urrats: Gipuzkoako paupturria.
- > Lesakako dantzak (mutilak): Ziarka, Zubigañeko eta mutil dantza
- > Itai dantza (neskak).
- > Arratia, Domingullo eta Gorulari (neskak eta mutilak).

15:00 Dantzarien bazkaria Etxe Haundi jatetxean.

18:00-19:30 Arratsaldeko dantzen programa:

- > Bateleras (neskak).
- > Lore Gazteak: Korrontxo.
- > Gipuzkoako dantzak (mutilak): Ezpata dantza, Jorrai dantza eta Makil dantza.
- > Jaurrieta (neskak).
- > Oinarin: Troqueo dantza.
- > Oñatz: Iribas.
- > Jota, fandango eta Larrain dantza (neskak eta mutilak).

TELEBISTA

Gabilondok egindako telesaila, hilaren 3tik

ETB 1 astelehenean hasiko da emititzen 'Mugaldekoak'; 36ko gerran girotuta dago

J.B. > BERGARA

36ko gerraren ostean girotutako *Mugaldekoak* telesaila astelehenean aurrera ikusi ahalko da ETBko lehen katean. Mireia Gabilondok zuzendari bergararra eta Fernando Bernues zinemagile bilbotarra arduratu dira telesaila zuzentzeaz. Telesailaren aurre-estreinaldia apirilaren 13an egin zuten Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

ONDO ZAINDUTAKO IRUDIAK

Irudia asko zaindu da *Mugaldekoak* egiterakoan. 1940ko hamarkada ondo islatzeko kontu handiz landu dira makillaje, ile apainketa eta jantziak. Hala, arropa gehienak Madrildik ekarri dituzte. Gainera, zineman adina landutako dekoratuak erabili dituzte.

Ainhoa Vitoria > Irrati esataria

"Irailean bukatu eta jada Gaztean egotea lanean izugarritzko zortea da"

Irailean Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zen Ainhoa Vitoria eta dagoeneko irratian esataria da Gaztea irradian. Abenduan hasi zen bertan lanean eta ordutik hona egunak nahiko lanpetuak izaten ditu arrasatearrak. Izan ere, goizak mikrofono aurrean ematen ditu eta arratsaldeetan irakasle ikasketekin lotutako masterra egiten dihardu Huhezin.

NAROA ODRIOZOLA > ARRASATE
Iratzargailuak goizeko bostetan jotzen du Ainhoa Vitoriaren etxean. Autoa hartu eta Donostiara abiatzen da, Gaztea irratiako estudioa. Donostiatik bueltan, Eskoriatzan egiten du geldialdia, Irakasle ikasketekin lotutako masterra egiten ari da-eta. Geuri ere lekutxo bat egin digu Vitoriak.

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua zara. Zergatik erabaki zenuen ikasketak horiek egitea?

Txikitatik gustatu zaidalako ikus-entzunezkoen mundua, eta, geneukan eskaintza ikusita, hori zen gehien gustatzen zitzaidana. Egia da Enpresa ikasketak egitea pentsatu nuela, baina batxilergoan erabaki nuen ez zela nire gustukoa, oso txarra nintzelako. Orduan, aukera hori sortu zen Eskoriatzan eta bertara joan nintzen, gertutasunagatik.

Irailean aurkeztu zenuen karrera amaierako proiektua: Irratia Huzezi fakultatean. Zer moduz joan zen?

Oso gustura egon nintzen egiten, asko gustatzen zaidan gaia delako. Gainera, proiektua norberaren gauza bat da, norberaren ideia da, eta orduan gustura egiten da. Euskadi Irratiko esatari bat izan zen nire tutorea eta harekin oso gustura egon nintzen. Baina gogorra ere bada, udan lan handia egin behar da-eta.

Ikasketak bukatuta, nola ikusten da bizitza?

Alde batetik, lasaitasuna sentitzen da ikasketak bukatzeagatik; baina, bestetik, beldurra ere bai. Lizentziatu nintzen egunean esan nuen: "Eta orain zer?".

Egun, irradian egiten duzu lan. Nola sortu zen aukera hori?

Aurreko udan irakasle batek esan zigun Gaztean esatari batzuk behar zituztela udan lan egiteko, eta izena eman nuen. Hala ere, ez nuen zorte handirik izan, beste hiru pertsona hartu zituztelako. Abenduan Jon Lamarka Gaztea Irratiko koordinatzaileak deitu zidan, eta musika albisteak emateko aukera zegoela esan zidan. Proba bat egin nuen eta onartu egin ninduten.

Zer moduzko esperientzia da?

Izugarria. Loteria tokatzea bezala izan da niretzat. Irailean bukatu eta jada Gaztean egotea lanean izugarritzko zortea da. Eta esperientzia aldetik ezin hobea



NAROA ODRIOZOLA

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak:** Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna naiz eta Irakasle ikasketetako masterra egiten dihardut Mondragon Unibertsitatean. **Zaletasunak:** Musika entzutea, zinemara joatea, sabel-dantza egitea... **Liburu**

bat: *La sombra del viento*, Carlos Ruiz Zafonena. **Ikusitako azken filma:** Martin Scorsesearen *Shutter Island*. **Abeslari bat:** Alicia Keys. **Bisitatutako lekurik politena:** Granada. **Bizi izateko herri bat:** Orio. **Amets bat:** Arlo guztietan horrela jarraitzea.

da, asko ikasten ari naizelako. Azken baten, unibertsitatetik irtetea ezjakintasun handia sentitzen da, eta lanean pila bat ikasten da.

Zein ataletan egiten duzu lan?

Musika albisteak ematen ditut. Horrez gain, aukera eman zidaten goizetan *Dida* saioan musika albisteak emateko. Hori ere izugarritzko esperientzia da, zuzeneko delako; eta, gainera, Joseina Etxeberriarekin, Edurne Garmendiarekin... nago eta haiek esperientzia handia dute.

Zergatik aukeratu duzu irrateria?

Irratia beste medioak baino gehiago gustatu zait beti. Hitz egiterakoan inork ez gaitu ikusten eta ez dakite nolakoak garen. Agian, ni naizen modukoa izateagatik, kostatu egiten zait kamera baten aurrean jartzea, eta irratia beste aukera hori ematen du. Misterioa dauka. Irratian gauza asko imajinatu egiten dira, eta hori ere ona da. Horrez gain, telebistan dena oso ondo planifikatua dago eta irradian gauzak ez dira horren zorrotzak.

Nola sentitzen zara irradian zaudenean?

Oso gustura eta pozik. Gainera, gogoratzen dut proiektua egiten ibili nintzenean denbora luzea pasatu nuela Huheziko irrati estudioan. Uda ostean bertara joan nintzen proba batzuk egitera eta sartu nintzenean esan nuen: "Zelako gogoia nuen hona sartzeko!". Gertuko jendeari kontatu nien eta hori zela nire lekua esan nien. Hori gertatzen zait Gaztean ere.

Horrez gain, arratsaldeetan irakaskuntzara bideratutako masterra egiten diharduzu. Zer dela eta?


Oraindik Gaztean lan egiteko proposamena irteteke zegoen, eta ikasten hasi nintzen, ez nuelako ezer egin gabe egon nahi. Master honek beste bide bat zabaltzeko aukera ematen dit, eta hori ere garrantzitsua da. Baina irakaskuntza mundua bigarren aukera izango litzateke.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Musika entzutea gogoko dut. Zinemara joatea ere asko gustatzen zait eta duela gutxira arte sabel-dantza egiten aritu naiz...gunen baten, berriz egingo dut.



Arrasateko **Ainara Arribas** eta **Iban Gonzalez** bihar, maiatzak 1, ezkonduko dira Gasteizko San Migel elizan. Bazkaria Oiongo Imperial Montesol jatetxean egingo dute eta eztei-bidaian Thailandiara joango dira. Koadrilakoen partetik, zorionak!



Aretxabaletako **Elizabeth Reina** eta Oñatiko **Andoni Graña** maiatzaren 1ean ezkonduko dira Oñatiko San Migel Goiangeruaren parrokian. Familiaren eta lagunaren partetik: "Oso ondo ibili zuen egunean eta elkarrekin oso zoriontsu izan zaitezte!"



Arrasateko **Azu** eta **Alberto** bihar, maiatzak 1, ezkonduko dira Arrasateko Itxaropenaren Amaren elizan. Bazkaria Gure-Ametsa jatetxean izango dute eta eztei-bidaian Argentinara joango dira. Zorionak, lagunaren partetik!



Eskoriatzako **Mercedes Rubia** eta **Delfin Segovia** 1960ko maiatzaren 2an ezkondu ziren. Domekan urrezko ezteiak beteiko dituzte. Zorionak, familiaren eta, batez ere, biloba Naroa, Nahia, Iker eta Ibaren partetik. "Muxu pila bat. Maite zaituztegu!"



Nerea eta **Jose** bihar, maiatzak 1, Apotzagako elizan ezkonduko dira eta bazkaria Zelai Zabal jatetxean izango da. Eztei-bidaian Italiara joango dira, oraingoz, badakigu-eta beste ideia bat dute-la udarako. Zorionak, lagunaren eta etxekoaren partetik!



Bergarako **Josune Alberdi** eta **Iñaki Artola** ezkondu zirela 25 urte beteko dira bihar, maiatzak 1. Hori dela eta, familiakoekin batera ospatuko dute eguna Zestoako bainuetxean. Familiaren partetik, zorionak!

hildakoak

- **M. Carmen Busteros Conde.** Arrasaten, apirilaren 22an. 81 urte.
- **Manuel Izurrategi Azkarretazabal.** Aretxabaletan, apirilaren 22an. 86 urte.
- **Nikolasa Arana Arregi.** Arrasaten, apirilaren 23an. 90 urte.
- **Pablo del Pozo Delgado.** Arrasaten, apirilaren 24an. 92 urte.
- **Iñaki Larrañaga Vitoriano.** Aramaion, apirilaren 24an. 94 urte.
- **Ramon Barrutia Eriz.** Aretxabaletan, apirilaren 24an. 81 urte.
- **M. Lourdes Izurrategi Biteri.** Aretxabaletan, apirilaren 25ean. 56 urte.
- **Angel Agirre Agirre.** Arrasaten, apirilaren 27an. 83 urte.
- **Teresa Iribecampos Agirre.** Arrasaten, apirilaren 27an. 95 urte.
- **Miguel Anduaga Igartua.** Arrasaten, apirilaren 28an. 72 urte.
- **Kontxita Aiastui Arteta.** Bergaran, apirilaren 28an. 81 urte.
- **Sheila Moreno Gomez.** Arrasaten, apirilaren 29an. 22 urte.

URTEURRENA

Lide Cortabarria Uriarte

Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 1ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokian ospatuko da.

Zure irrifarra eta maitasuna, betirako gurekin geldituko dira. Sekula ez zaitugu ahaztuko.



Aurrez eskerrik asko, bertaratuko zareten guztioi.

URTEURRENA

Pepita Uranga Olabe

Hipolito Etxebarriaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 2an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

Gure bihotzetan izango zaitugu beti.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

M. Lourdes Izurrategi Viteri

Donostian hil zen 2010eko apirilaren 25ean, 56 urte zituela.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.



M.Carmen, Rosarito eta Mila. Eskoriatzan, 2010eko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

Iñaki Larrañaga Vitoriano

Igone Larrañaga lankidearen aita

Gasteizen hil zen 2010eko apirilaren 24an, 94 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.



Arizmendi ikastolako lankideak. Leintz bailaran, 2010eko apirilaren 30ean.



OROIGARRIA

Juan Antonio Elorriaga Aranburu

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 1ean, 52 urte zituela.

Hil zara baina biziko zara zu beti gure gogoan. Itxaropena dugu biltzeko berriz zurekin zeruan.



Bergaran, 2010eko apirilaren 30ean.

ESKER ONA

M. Lourdes Izurrategi Viteri

Donostian hil zen 2010eko apirilaren 25ean, 56 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2010eko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

Sheila Moreno Gomez

Arrasaten hil zen 2010eko apirilaren 29an, 22 urte zituela.

Haizea bezala etorri zinen, haizearen korrantean bildu gintuzun, haizearen indarrak arrastoa egin duzu, haizearen lastanaz gurekin izango zaitugu. Ez adiorik, ez agurrik, gero arte, Xexi.



Zure lagunak. Arrasaten, 2010eko apirilaren 30ean.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Apirilak 30-Maiatzak 6

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Ospakizuna



ESKORIATZA

> Atxorrotzen goiz-pasa, musika, tortilla-salmenta eta bestelakoak etzi

Etzi, domeka, Atxorrotz eguna ospatuko dute. Hara igoko dira (09:30), meza (11:00) eta trikitia izango dute; han jatekoak emango dituzte. 18:30ean, herritarrek egindako tortillak salduko dituzte Herriko Plazan.

Merkatua



ARAMAIO

> Bigarren eskuko merkatua eta trukea egingo dituzte gaur, egubakoitza

Gaur, 17:00etan, Herriko Plazan, denetariako gauzak salgai ipiniko dituzte: kirol materiala eta arropa, haurdunaldiko eta umeendako materiala, etxetresna elektrikoak, jostailuak... Norberak ipiniko du prezioa, eta trukea ere egin ahalko da.

Erakusketa



OÑATI

> Gabriela Mistralen gaineko erakusketa dago kultura etxean

Gabrielaren umeak, Mistralen Txileak izenburuarekin, Gabriela Mistral poeta txiletarraren omenezko argazki erakusketa ipini du Agustin Goenagak, eta etzi, domeka, da bisitatzeko azken eguna. Egunero dago zabalik (18:00-20:00).

ARRASATE

> Hainbat kontzertu aste bukaeran 3 aretoan

Left Alone (AEB), Crackers eta Arrasateko Dirty Brothers taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, 23:00etan; sarrerak salgai daude 8 eurotan. 06:00etan hasita, DJ Txino eta DJ Ibok-ek girotutako festa izango da.

Etzi, domeka, Skaff-Links (Japan) eta Luz de Putas taldeek joko dute. Sarrera 6 euro da eta kontzertua 20:00etan hasiko da.

Dirty Brothers-en kontzertua, bihar, zapatua, 23:00etan.

ARRASATE

> Kubers taldeak kontzertua egingo du Gure-lekun

Gasteizko eta Arrasateko Kubers rock taldeak emanaldia egingo du. Segidan, DJ Beñat (Silum Soundz) disko-jartzaileak musika ipiniko du.

Bihar, zapatua, 23:00etan hasita.

BERGARA

> Leioako San Juan Bautista abesbatza eta Gabero

Leioako San Juan Bautista abesbatzak eta Bergarako Gabero abesbatzak emanaldia egingo dute. Polifonia, musika erlijiosoa, euskal musika eta gospela entzuteko aukera egongo da. Bi taldeek piano-joleak izango dute: Bergarako Eli Mendiartz, eta Leioako Itziar Bilbao.

Etzi, domeka, Mariaren Lagundiaren elizan, 19:00etan.

Antzerkia

ARRASATE

> 'XL Town' antzezlanaren egingo dute, kontsumismoaren gainean

XL Town lana antzeztuko du Pikor taldeak, Arropa Garbia kanpainaren barruan, SETEM Hego Haizea GGKEak antolatuta. "Mendebaldeko hiritarren kontsumo ohitura konpultsibo eta burugabeen" inguruko eta "erosten, janzten eta kontsumitzen dugun arroparen atzealdean zer dagoen erakusten digun antzezlan" da.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

ARETXABAETA

> 'Harri irratixek' delako bakarriketa ikusteko aukera

Goio Arrietak *Harri irratixek* izeneko bakarriketa egingo du. Pertsonaiak azkeneko 40 urteetan ze talde, ze kantari, ze musika, ze umorek... markatu duten azalduko du, lau pertsonaiaren bitartez eta bakarriketa, musika eta bideoklipen bitartez.

Gaur, egubakoitza, kultura etxeko Zaraia aretoan, 22:00etan.

BERGARA

> 'Soy una sola' antzezlanaren, bakardadearen inguruan

Kantinelen antzerki taldeak *Soy una sola* delako antzezlanaren egingo du. Emakumearen bakardadearen gaineko antzezlan dramatiko-komikoa da. Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 20:00etan.

BERGARA

> 'Baserriko saltsa', umeendako ikuskizuna ikusteko aukera

Baldufa antzerki taldeak *Baserriko saltsa* umeei zuzendutako antzezlanaren egingo du. Sarrera 3 euro da.

Etzi, domeka, Zabalotegin, 17:00etan.

Ospakizunak

BERGARA

> Labegaraieta auzoan jaiak ospatuko dituzte zapatuan

Honako ekintzak izango dituzte: etxafuegoak eta udal txistulari bandarekin diana (10:00), meza nagusia San Joxepeko abesbatzarekin (11:00), salda eta txorizo-jana, poteoa (14:00), txirrindularitzako 48. Labegaraieta saria (16:30), txokolatada kiroldegiko kanpan (18:00) eta etxafuegoak. Bihar, zapatua.

ARRASATE

> Iamai kafetegiak 10. urteurreneko jaialdia egingo du

DJ Makalak denetariako musika ipiniko du: funky, soul, danceball, global funk, ska... Bihar, zapatua, 23:00etan.

Musika

BERGARA

> Musika eskolak hainbat emanaldi antolatu ditu

Musika eskolak antolatuta, Patxi Monterok gidatutako Europako dantza jardunaldia

egino dute bi taldeek (17:15-18:15 eta 18:15-19:15), musika eskolan bertan; eta 18:00etan, musika kalejira egingo dute eskolako kideek, denetariako musika tresnak jotzen.

Emanaldi gehiago izango dira maiatz erdialdean.

ARRASATE

> Leioa Kantika Koralk emanaldia egingo du

Udaberriko Musikaldien barruan, Leioa Kantika Koralkaren kontzertua izango da gaur, egubakoitza.

San Juan parrokiaren, 20:00etan.

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Alessio Bax, munduko piano-jolerik onenari baten emanaldia entzuteko aukera

Adituek munduko onenen artean dute Alessio Bax (Bari, Italia, 1977): Avery Fisher Career 2009 saria, 1. saria eta Urrezko Domina lortu zituen 2000n Leeds-eko piano lehiaketan, eta 70 orkestra baino gehiagorekin solista gisa jotzen du. Orain Arrasaten entzuteko aukera dugu, Udaberriko Musikaldien eskutik. J.S. Bach, Ravel eta Granados konposatzaileen piezak joko ditu bi zati izango dituen emanaldian.

Bihar, zapatua, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, 20:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

PLANETARIUMEKO KARTELDEGIA ASTEBURU HONETAN

Murgildu zaiten 360°tako pantailaren azpian eta gozatu irudi ikusgarriez.

Maiatzak 1

12:00 eusk. "Kartoizko suziaren sekretua".
13:00 gazt. "Biziaren jatorria".
15:30 fran. "Infiniti Express".
17:00 eusk. "Kaluoka'hina".
18:00 gazt. "Evolución".



Maiatzak 2

12:00 eusk. "Infinity Express".
13:00 gazt. "Kaluoka'hina".
15:30 fran. "Kartoizko suziaren sekretua".
17:00 eusk. "Kaluoka'hina".
18:00 gazt. "Biziaren jatorria".

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Ordutegia
Asteleneetan ixita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

Hondartza eta plaza berria

HONDARTZA Mankomunitatearen eraikinaren osteko zelaia hondartza bihurtu zen joan den zapatuan

ESPAZIO PUBLIKOAK AKTIBATZEN Herriko guneei bizitza emateko ekintzak egingo dituzte hemendik aurrera

'PUTZU PLAZA' Gaurko hitzordua egin dute, 19:00etarako, Ferrerias kalean dagoen plaza inauguratzeko

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE
Joan den zapatuan, Arrasaten, Mankomunitatearen eraikinaren osteko zelaia hondartza bihurtu zen bat-batean. Sonbrillak, aulkiak eta hamaiketakoak hartuta ederki ibili ziren bertara hurbildutakoak. Eguraldia, gainera, hondartzara joateko modukoa izan zuten. Txalaparta doinuak ere izan ziren, Ttakun taldekoak ere hondartzara joan ziren-eta.

Dena dela, zapatukoa ez zen izan lagun koadrila baten egun-pasa soila. Helburu batekin antolatutako ekimena izan zen; *Arrasateko hondartza* ipini zioten izena eta helburua zen herriko espazio publiko bat aktibatzea.

'KALEKO ZITAK'

Zapatuko hitzordu horren jatorria Emakume Txokoak martxoan eskaini zuen *Grafikoki esparru publikoak aktibatzen* izeneko ikastaroa da. Ikastaro horren ondorioz jaio zen *Kaleko zitak* izeneko ekimena; zapatukoa lehenengo hitzordua izan zen, baina



ARRASATEKO HONDARTZA Mankomunitate osteko zelaian ederto ibili ziren zapatuan.

FUKSIA LIVE

hemendik aurrera hitzordu gehiago egiteko asmoa daukate Arrasateko gune publikoei bizitza emateko.

'PUTZU PLAZA'

Gaur, barikua, bigarren ekintza egingo dute. Arrasateko plaza berri bat inauguratuko dute; *Putzu plaza* ipini diote izena eta Ferrerias kalean dago. "Oso txoko polita da, baina ez zaio erabilerarik ematen. Horregatik, pentsatu dugu herritarrek plazara gerturaraztea eta inauguratzea", azaldu dute antolatzaileek.

19:00etarako egin dute hitzordua eta *Putzu plaza* non dagoen ez dakitenek ez dute inolako arazorik izango bertara iristeko; Ferrerias kalean ohartxoak eta kartelak ipiniko dituzte jendea bideratzeko.

Kaleko zitak ekimena jaio berria den arren, ari da emaitzak ematen. Arrasatek dagoeneko badauka hondartza eta egubakoitz honetatik aurrera, gainera, beste plaza bat ere izango du.

ahobero

"Bilbo ezkeraldekoa naiz, euskara inoiz hitz egin ez den eremu batekoa. Euskara zaila da; gainera, askotan, piper egiten dut"

Patxi Lopez > Lehendakaria
Lehendakariak agerian utzi du euskara ikasteko daukan borondatea eta gogoia. Dena dela, eta borondate kontuak alde batera utzita, gogorrena da horrenbeste kale egiten dituen eskola horiek 36.000 euroko kostua daukatela.

iturri onetik

Bergarako ondare historikoari balio turistikoa nola eman aztertu dute

STOA enpresa kataluniarrak Bergarako ondare historiko artistikoa balio turistikoan jartzeko bideragarritasun plana landu du. Txosten horretan, Errege Seminarioa kokatzen da ondare historiko artistikoaren erdigune moduan. Udalak txostena udalbatza osatzen duten alderdi guztiei aurkeztu die eta epe laburrean herritarrei azalduko diela adierazi du Udal Gobernuak.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa/

Aurrezki kutxak jaki?

Espainiako finantza sistema aztoratuta dabil, eta nagusitzen ari den ideia batek aurrezki kutxen despolitizazioa aldarrikatzen du. Politikariek muturra gehiegi sartu bide dute eta profesionalen ordua iritsia litzateke. Ez da gezur erabatekoa, baina egia osoa ere ez.

Azken hamarkadotan aurrezki kutxak desagertu egin dira Europan bankuen mesedetan, eta Espainiakoa ere dinamika horretan ulertu behar da. Merkatuaren erdia hartzen dute kutxek eta bankuek finantza krisia baliatu nahi dute zati potolo hori eskuratzeko, aginte finantzari eta politikoaren laguntzarekin. Euskal kutxetan erasoari aurre egiteko borondate garbia ikusten dut. Eta banaka sendo badaude ere, bat eginda nekezago jango litzuzke inork. Datorren urtean?

ai, ene!



Ohe honetan pisua ondo banatu beharko da

Zarataren arazoa konponduta dago ohe horrekin, baina bikote-kideen pisuak orekatuta egon beharko du, bestela...

www.fotosdehumor.com

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ARETO NAGUSIAN
etorri aurretik izena eman!

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MAIATZAK 6 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN MAIATZAK 6 osteguna - 18:00 *2. zikloa*

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA MAIATZAK 8 larunbata - 11:00